



ERRITMO ONEAN

Aurreikusitako epeak betetzen ari dira kiroldedia eraberritzeko lanetan. Kantxa berdea eta bertako aldagelak datorren asterako erabilgarri egongo dira eta igerilekuak urte berriaren hasierarako amaituta egotea espero du udalak.

IÑAKI OLALDE / Udaleko Kultura batzordeburua

"Aurten ez dira jaiak ospatuko ohiko eran, baina ez da kultur ekitaldirik faltako"

► Irailaren 8an (kultur etxean, 18:00) bilera irekia egingo da egitaraua adosteko

Iraila berezia izaten da Oñatin. Oporretatik bueltan, San Migel eta Errosarixo jaietara begira egoten gara, ilusioz. Aurten, baina, Covid-19aren ondorioz ezin dira ospatu herriko jaiak ohi bezala. Ez da festa girorik izango, baina udalak kultur egitarau zabala antolatzeko asmoa du. Asteartean (irailak 8) egingo den bilera irekiera eramango du bere proposamena, denon artean aztertu eta adosteko. Udaleko Kultura batzordeko buru Iñaki Olalde eman dizkigu azalpenak.

Bereziak, ezohikoak, izango dira aurtengo 'jaiak'.

Hala beharko du aurtengoak. 'Jaiak' hitza bera ere ez nuke erabiliko. Kultur egitarau zabala eskaintzea da gure asmoa, eta horretan dihardugu.

Herriko eragileekin batera hartutako erabakia izan da, ezta?

Bai. Ekainean hasi ginen aurtengo jaien inguruko hausnarketa eta lanketa egiten. Hiru bilera ireki egin genituen, jaietan egingarri diren eta ez diren jarduerak identifikatzeko. Hainbat eragilek eta udaleko ordezkari politikoek parte hartu zuten, eta bertan egoterik izan ez zutenekin telefonoz edo aurrez aurre izan gara.

Zein dira ekitaldi egingarriak eta zeintzuk ez?

Musika banda eta txistularien kontzertuak, bertso jaialdia, adin guztietarako antzerki edo musika ikuskizunak, kirol saioak... egingarriak dira, beti ere, legeak ezartzen dituen protokoloak eta segurtasun neurriak bermatzen badira.



Alderantziz, jende-pilaketak saihestea ezinezkoa den ekitaldiak bertan behera geratuko dira: danborradak, Herri Eguna, Errosarixo Bixamona, barrakak, sokamuturra, kalejirak...

Danborrada ospatzeko aukera ezberdinak aztertu dituzue, ezta?

Helduena hasieratik baztertu genuen, kalejira formatuan delako polita, eta jende asko erakartzen duelako. Haurren danborrada kiroldegian antolatzeak aukera aztertu genuen, umeen ilusioagatik batez ere, baina azkenean ez egitea erabaki dute antolatzaileek.

Haur dantzarien eguna ere ez da ospatuko, eta artzain txakur txapelketa ere ez. Pintura eta sukaldaritza lehiaketak ez dira

egingo, eta erabaki gabe dago oraindik, bola-jokua eta beste ekitaldi batzuk antolatuko diren ala ez.

Irailaren 8rako deitu duzue hurrengo bilera irekia. Zein helbururekin?

Aurreko bileretan adostutakoa aintzat hartuta, guk proposamen bat aurkeztuko dugu (egun bakoitzean zenbat eta zer nolako ekitaldiak antolatu daitezkeen, baina artistak edo musikariak zehaztu barik), eta bertaratzen diren artean aztertu eta adostuko dugu. Guk baditugu buruan aukera batzuk, baina udalak oraindik ez du inolako kontrataziorik egin. Kultur arloko panorama zein den ikusita, ez dut uste arazorik izango dugunik egitaraua osatzeko.

Formatu handiko kontzerturik izango al da aurten?

Bileran ikusiko dugu zer dioen jendeak; nire asmoa, behintzat, ez da *Su ta Gar* edo *Ken Zazpi* bezalako taldeen kontzertuak antolatzea. Izatekotan, San Migel bezperan —astelehena da— programatu liteke horrelako zerbait, herrikoentzat, kanpoko jende askorik etorriko ez dela pentsatuz.

Kontzertuak plazako jolas lekuan antolatzeak aukera aztertzen ari gara. Barrakarik ezean, sarrera-irteerak antolatu eta edukiera edo aforoa egoki kontrolatzeko aukera ematen du gune horrek. Dena den, formatu txikiko kontzertuak herriko beste plaza edo gune batzuetara eramatea ere ez da baztertzeko.

San Migel eguna asteartean

» **Ez da tanborradarik, Herri Egunik, Errosarixo bixamonik, sokamuturrik edo barrakarik egingo. Jende pilaketak ekiditeko aukera ematen duten kultur eta kirol ekitaldiak antolatuko ditugu.**

egokitzen da aurten. Betiko jai egunak mantenduko al dira?

San Migel eguna jai egun ofiziala da eta, beraz, errespetatu egingo dugu. Asmoa da hainbat ekitaldi programatzea egun horretan, eta baita bezperan ere. Bixamon egunean aldiz, ez dut uste ezer egongo denik, ezta Errosarixio Bixamonean ere, nire aldetik, baina ikusiko dugu jendeak zer dioen.

Bestalde, erabakitze dago oraindik, ekitaldi guztiak jai egunetan kontzentratu ditugun, edo sakabanatu egingo dugun denboran, adibidez, irailaren 15etik urriaren 15era arteko asteburuetan.

Ordutegiari dagokionez, salbuespenak egon daitezke, baina asmoa da ekitaldiak arratsalde-partean programatzea; hau da, beranduen iluntzeko 20:00etan hasia ekitaldiak, ez dugulako gaueko aisialdi giroarekin lotu nahi.

Errazena, agian, jaiak bertan behera uztea izango zen, baina kultura eta sormena sustatu nahi dituzue.

Hala da, bai. Musikari, aktore eta kulturgile guztiek, oro har, egoera zaila bizi dute birusaren ondorioz, eta gure aletxoak ipini nahi dugu kultur sormenaren alde. Horregatik antolatu genuen 'Esku•ltu•ra' egitaraua ekainean eta uztailean, eta udazkenean ere kulturaren aldeko apustua egiten jarraituko dugu.

'Esku•ltu•ra' programako ekitaldietan eta Trianako jaietan ere ikusi zen, protokoloak zainduz gero, antolatu daitezkeela kultur ekitaldiak.

Bai. Trianako jai batzordeak lan

bikaina egin zuen, eta bertaratu ziren herritarren jarrera ere oso egokia izan zen. Garbi gelditu zen gauzak zentzuz egiten badira, segurtasun protokoloak errespetatuz, kulturaz gozatzeko aukera badagoela, mugekin bada ere.

Hala ere, udan zehar ikusi da zenbait herritan, jai ofizialik ez egon arren, kutsatzeak areagotu direla gau-parrandekin lotuta. Kezkatzen al zaitu?

Oñatin, zorionez, orain arte ondo eraman dugu Covid-aren arazoa, eta ez nuke ulertuko orain, iraillean, errematea ematera aterako bagina. Uste dut jendea gero eta kontzientziatuago dagoela, eta arduraz jokatu duela. Antolatuko ditugun ekitaldiak eta ordutegiak ere ez doaz gaueko parranda bultzatzera. Gainera, tabernen ordutegia ere mugatuta dago, eta, beraz, egunez ibili beharko dugu, kultur ekitaldiez gozatuz, eta ordua iritsitakoan, etxera. Aurtengoak hala beharko du!

» **Asmoa da ekitaldiak arratsalde partean programatzea; hau da, beranduen iluntzeko 20:00etan hasia ekitaldiak.**

» **Uste dut jendea kontzientziatu dagoela eta arduraz jokatu duela.**

Txosna batzordeak ere ba omen du bere egitaraua antolatzeko asmoa.

Azken bilerara ezin etorria adierazi zuten. Udalak, bere aldetik, konpromisoa hartu zuen txosna guneko aforoa zein zen kalkulatzeko, beti ere eremu itxia izanda, sarrera eta irteera kontrolatuarekin. Kontua da, orduetik hona protokoloak estutu egin direla; orain eserita egon behar da, bai ikuskizunaz gozatzeko eta baita kontsumitzeko ere. Beraz, aztertu egin beharko dute zer eta noraino programatu ahal duten.

(Txosna Batzordetik jakinarazi digute badutela gogoia zerbait antolatzeko, Trianako jaietako eredua jarraituz. Jende asko eta berria elkartu da txosna guneko egitaraua antolatzeko gogoz, eta zirraborro bat ere badute prest, baina osasun neurrien inguruko protokoloak aldatzen ari direnez, datozen asteetan erabakiko dute zer egin.)

Herri agintaririk gabe ospatuko da Arantzazuko Ama Birjinaren eguna irailaren 9an

Gipuzkoako zaindaria den Arantzazuko Andre Mariaren eguna herri agintaririk gabe ospatuko da aurten. Covid-19a dela eta, frantziskotarrek erabaki dute bertan behera uztea agintariei egin ohi zaien harrera eta meza ondorengo musika bandaren kontzertua.

- **MEZA 12:00etan.** Eguerdiko 12:00etan ospatuko da eguneko meza nagusia. Erabat baieztatu ezin izan badugu ere, Jose Ignacio Munilla Donostiako gotzaina izango meza-buru. Soilik 500 lagunentzako tokia egongo da Arantzazuko basilikan. Txartelak, Arantzazuko dendan eta Oñatiko Txokolateixan eskuratu daitezke aurrez.

- **ERROMESALDIA BERTAN BEHERA.** Aurten ez da Oñati eta Arantzazu arteko erromesaldia egingo. Nahi duenak bere aldetik egin beharko du ibilaldia.

- **AUTOBUS ZERBITZUA.** Irailaren 9an Oñati eta Arantzazu arteko autobus zerbitzua egongo da. Goizeko 7:30etan hasita, orduro abiatuko da autobusa Oñatitik, eta Arantzazutik behera ordu puntuetan, 8:00etan lehena eta 19:00etan azkena.

Urte askotan zuekin

© 688 764 299

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es



Jaione San Miguel Ugarte

MAPFRE
OÑATI



Orueta etxea zinema plato bihurtuko da



Manu Gomez zinegilearen 'Érase una vez... Euskadi' filmeko hainbat eszena filmatuko dira bertan asteburu honetan

Aozaraza kaleko Orueta etxeko behe eta lehen solairuak zinema plato bihurtuko dira datozen egunetan. Bertan filmatuko dira Manu Gómez arrasatearraren 'Érase una vez... Euskadi' pelikula hainbat eszena.

1985eko Euskadin girotuta dago filma. Andaluziatik Euskal Herrira emigratu duten lau familiatako semeen bizipenak kontatzen ditu. "Granadar etorkinen semea naiz ni, Arrasaten jaio nintzen, eta, beraz, haurtzarora itzultzea izango da" adierazi du zuzendariak. "80. hamarkadako Euskadi zahar, borrokalari eta gatazkatsu hura bizi genuenoi, gozatu genuenoi eta, askotan, negar eragin zigunoi utzi zigun arrastoaz hitz egiten du filmak, 12 urteko lau mutikoren begiradatik". Ihes egin behar izan zutenei, bertan geratu zirenei, eta, bereziki, integrazioaren eta elkarbizitzaren alde borrokatu zuten pertsonen buruzko filma da.

Talentu berrien aldeko apustua egiten duen Madrilgo *La Canica Films* etxeak ekoizten du filma,



Manu Gómez, zine zuzendaria

RTVE eta EITBren babesarekin, besteak beste.

Asier Flores (*Dolor y Gloria*), Aitor Calderón (*Que Dios nos perdona*), Miguel Rivera (*Dos amantes*) eta Hugo García dira

haur protagonistak, eta hauen ondoan ikusiko ditugu, besteak beste, Yon González bergararra eta Josean Bengoetxea donostiarra aktore lanetan.

FILMAKETA OÑATIN

Arrasate, Bergara, Soralue eta beste zenbait lekutan filmatuko dute pelikula, zazpi astez. Oñatiri dagokionez, lauzpabost egunera mugatuko dira filmazio lanak (irailaren 3tik 6ra), eta eszena guztiak etxe barruan grabatuko direnez, ez du aparteko eraginik izango gure egunerokoan. Ekoiztetxeak 40 bat aparkaleku eskatu ditu Ultzezin kalean, eta hori kontuan hartuz, egun horietan Kalegoienako parkinean dohainik aparkatu ahal izango da.

Manu Gomez arrasatearra zuzendari laguntzaile lanetan aritu izan da Antonio Hernández, Helena Taberna edo Daniel Calparsorekin, besteak beste, eta hau da bere *opera prima*. Aurretik, *Hilari* (Zinebi saria) eta hainbat sari jasotako *Das Kind* laburmetriak zuzendu zituen.

► **80. hamarkadako Euskadi zahar, borrokalari eta gatazkatsuak andaluziar jatorriko lau mutikorengan utzi zuen arrastoaz hitz egiten du filmak**

ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK

LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxes: 943 71 62 40

Mugikortasun Iraunkorraren Astea ospatzeko prest!

Irailaren 16tik 22ra ospatuko da Oñatin, hainbat ekitaldi eta oparirekin Ingurumenarekiko kaltegarriak diren ekintzak murriztu eta mugikortasun iraunkorraren alde beste aurrerapauso bat ematea da helburua



EUROPEAN
MOBILITY
WEEK

16-22 SEPTEMBER 2020

#MobilityWeek



» ZOZKETA

Irailaren 16an ideia-lehiaketa egingo da, mugikortasun iraunkorraren alde Oñatin gauzatu daitezkeen ekintzak proposatzeko. Partaideen artean bizikleta tolesgarri bat zozketatuko da.

2002. urtean Europa mailan hasitako egitasmoari jarraipena emango dio Oñatiko Udalak 2020 honetan ere. Hala, Oñatin Tokiko Agenda 2030 egitasmoaren baitan, irailaren 16-22 egunetan zehar, mugikortasun iraunkor baten alde egiteko sentsibilizazio kanpaina garatuko da herrian. Horrekin batera, halaber, Oñatiko Tokiko Agenda 2030 egitasmoaren berri izango dute oñatiarrek.

Helburua, ingurumenarekiko kaltegarriak diren ekintzak murriztea izanik, mugikortasun iraunkorraren alde beste aurrerapauso bat emateko hainbat jarduera burutuko dira. Bai umeez zein helduek izango dute parte hartzeko aukera, adin guztientzako egokituriko ekintzak burutuko baitira.

IDEIA-LEHIAKETA ETA ZOZKETA

Irailaren 16an bertan, adin guztietako herritarrei zuzenduriko ideia-lehiaketa martxan jarriko da. Mugikortasun iraunkorraren alde egiteko Oñatin gauzatu daitezkeen ekintza zehatzak proposatzu parte hartu ahal izango dute oñatiarrek. Partaideek, gainera, bizikleta tolesgarri bat irabazteko aukera izango dute, ideiarekin bat bidalitako herritar guztien artean zozketatuko baita.

Irailaren 19a egun borobila izango da, jarduera ugari burutuko baitira herrian: informazio gune berezia Foruen enparantzan, Usakora bizikleta martxa familientzat, haurrei zuzendutako tailerra... Aurreikusitako ekintzen bidez tarte atseginez gozatzearekin batera, mugikortasun iraunkor baten alde egitearen garrantziaz jabetuko dira herritarrek. Ekintzetako partaideek ere oparia irabazteko aukera izango dute.

Orain, inoiz baino gehiago, ingurumenarekiko errespetua eta Lurra zaintzearen beharra agerian geratu den honetan, Oñatin ospatuko den Mugikortasun Iraunkorraren Astea sorpresaz beterik eta herritar guztiengana heltzeko prest dator.

 **ZURICH**
M^a del Mar Urrutia Negueruela
Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER
ETXEETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LEHIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...

DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA
SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHIAGO
OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 ONATI - GIPUZKOA
695 78 91 04 - 943 04 47 77



Kantxa berdea prest, eta igerilekuak urtarrilerako

Aurreikusitako epeak betetzen ari dira kiroldegia eraberritzeko lanetan. Kantxa berdea eta bertako aldagelak datorren asterako prest egongo dira, eta igerilekuak urtarrilaren lerako amaituta egotea espero du udalak.

Urtebete igaro da, jada, kiroldegia eraberritzeko lanak hasi zirenetik, eta albiste onak ditugu, izan ere, aurreikusitako epeak betetzen ari baitira, eta hori ez da beti hala izaten tamaina honetako obretan. Kontuan hartu behar da, gainera, COVID-19aren ondorioz obra gelditi zela bi astez, baina, hala eta guztiz ere, aurrez planifikatutako faseak betetzen doaz eta, dagoeneko, lehen mugarrira iritsi dira.

KANTXA BERDEA PREST
Denboraldi eta ikasturte berria-

ren hasierarako kantxa berdea erabilgarri egotea zen aurreneko helburua, eta bete da. Aste honetan margotuko dute zorua eta datorren asterako erabilgarri egongo da kiroldegiko kantxa nagusia.

Gainera, aurreikusitakoak baino lan gehiago egin dituzte kantxa berdean. Soilik aldagelak berritzea zen hasierako asmoa, baina Covid-19ak kirol jarduera guztiak eten zituela baliatuz, kirol gunea bera ere berritzea pentsatu zuten udalak eta obra zuzendaritzak. Hala, kantxako zorua, sabaia eta argiteria be-

rritu dute, horman panel fenolikoa ipini dute, eta leihoak nahiz kanpoaldeko arotzeria metalikoa berritu dute.

Kantxa berdeko aldagelak ere berritu dituzte. Sei aldagela daude orain, hiru mutilentzat eta beste hainbeste neskentzat, tartean egokitutako aldagela bana dutela, eta komunak ere bai; lehen ez zegoen komunik kantxa berdearen ondoan.

IGERILEKUAK
URTARRILERAKO

Kiroldegiko gunea hezeko lanak ere oso aurreratuta daude. Ur

Kantxa berdeko zorua aste honetan margotuko dute eta datorren asterako erabilgarri egongo da

putzuen inpermeabilizazioa eginda dago jada eta, laster, azulejoak jartzen hasiko dira. Hile honetan hasiko dira igerileku handiaren aldamenean egongo den harmaila gunearen (100 bat lagunentzat) egitura eraikitzen, eta aldagela, dutxa, komun, nahiz sauna gunetako alikatatuak eta bestelako instalazio lanak (argiteria, ura...) egiten.

Ustekaberik ez bada, datorren urte hasierarako gune hezeko obra amaituta eta igerilekuak erabiltzeko moduan egotea da Udalaren eta obra zuzendaritzaren asmoa. Gogoratu, 9 kaleko igerileku handia (lehengoak 5 zeuzkan) eta 16x8 metroko pizkina txikia (lehengoak 12,5x6 metroko azalera zuen) izango dituela kiroldegi eraberrituak. Berdegunean ur jolasen gune txiki bat egokitzeko asmoa ere bazegoen hasieran, baina, oraingoz, ez egitea erabaki dute, leku ainubea delako; hala ere, ur hornidura bertaraino eramango da, aurrerago ur txorrotak jartzea erabakiko balitz ere.

Gune hezeko aldagelak eta sauna lehen solairuan egongo dira, igerilekuen maila berean, eta igerileku txikiaren gainean solariuma egokituko da, berdeguneari kendutako lekua konpentsatzeko.

Kiroldegia berritzeko lehen fase honetan, gimnasioa, rokodromoa eta karate nahiz fitness jardueretarako gelak eta aldagelak ere egokituko dira, eraikin berriaren beheko solairuan, igerileku txikiaren azpian. Espazioen banaketa eginda dago, eta hemen ere instalazioak (klimatizazioa, zoru erradiatzailea...) egitea eta akaberak ematea baino ez da falta. Gune hau otsailerako amaituta egotea aurreikusten da. Horrekin bukatuko lirateke lehen faseko lanak.

GEOTERMIA

Orain arte aipatutako lanez gain, ki-



9 kale izango ditu igerileku handiak; lehengoak 5 zituen.



Igerileku txikiak 16x8 m.-ko azalera izango du; (lehengoak 12,5x6 m.).



Geotermia eta galdara gela.



Sarrera berria hasi da itxuratzen.

ANE MERTZERIA

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

roldegiaren eraikin zaharreko teilatua berritu da, pilotalekukoa barne, eta eraginkortasun energetikoa hobetzeko hainbat neurri ere hartu dira, eta horien artean azpimarratzekoa da geotermia instalazioa. Berdegunean jaso den eraikin berriaren azpian 36 hodi sartu dituzte lur azpian 130 metroko sakoneraraino, ur zirkuito bat sortuz, eta modu horretan lurraren hozberoa baliatu ahal izango da piszinako ura berotzeko eta instalazioak klimatizatzeko. Horri esker, CO₂ tona askoren isurketa ekidin ahal izango da, eta apustu garrantzitsua da, duda barik, jasangarritasun ikuspuntutik.

Lurraren bero-energia aprobetxatzeaz gain, kiroldegiko eraikin osoaren (teilatua, hormak, zorua...) isolamendua hobetu da, eta, lehen bezala, eguzki plaka fotoboltaiakoak eta termikoak ere instalatuko dira, energia iturri berriztagarriak baliatzeko.

Bestalde, azpimarratzekoa da lehen kiroldegiko sotoan zegoen transformazio zentroa kanpora atera dela, segurtasunagatik eta efizientziagatik, Bidebarrieta kalean egokitu den etxolara. Pilotalekuari dagokionez, larrialdietarako ate berri bat egokitu da, eta horri esker edukiera edo aforoa handitu ahal izango da, eta, gainera, pilotalekura doan eskailera ere berritu egingo da eta igogailua instalatuko da tenis pistetako kotaraino, irisgarritasuna bermatuz.

Ildo horretan, gogoratu behar da udalak *Ikusmark Accesibilidad* aholkularitza enpresa kontratatu duela kiroldegiko irisgarritasuna hobetzeko, araudiak ezartzen duenetik haratago.

Kiroldegia eraberritzeko lehen faseko lanek 8,5 milioi euroko aurrekontua dute.



Kantxa berdeko paretako isolamendua eta gaineko kristaldegia erabat berritu dira.



Kantxa berdeko aldagelen ondoko komuna.



Argiteria, sarea eta harmaila itxuraldatuta.



Kantxa berdeko aldagela berrietako bat.

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop

EGUR-LAN
AROTEGIA
LIMABAR S.A.L.
BEREZAIO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es



GERTUKO ZERBITZUA momentu zailetan

Neurrira eginiko **aseguru programa pertsonalizatua** eskaintzen dugu

Zertan eragin dizue COVID-19ak zuen egunerokotasunean?

Digitalizazioan. Eguneroko tratua zertxobait aldatu da. Hala ere, ezinbestekoa izaten jarraitzen du gertuko zerbitzua, batez ere momentu txarretan. Herrian bertan tratua pertsonalizatu eta zuzena izateak balio erantsi oso garrantzitsua dauka.

Zertan oinarritzen da zuen digitalizazio-estrategia?

Pandemiaren ondorioz, bezeroarekin ditugun komunikazio-bideak egokitu ditugu, eta ohiko bideez gain, Zoom, Skype eta beste plataforma digital batzuen bidez komunikazioa indartu dugu.

Aseguru artekaritza izanda, zein da zuen proposamenaren balio erantsia?

Aholkularitza independente baten oinarritutako zerbitzua emateko aukera daukagula. Aseguruak ulertzeko filosofia desberdina dugu, bezeroari benetan laguntzea da gure helburua. Horretarako, programa pertsonalizatua eskaintzen dugu, bezero bakoitzaren norbanako baldintzak aztertu, eta bere beharretara egokitutako programa.

Zein aseguru etxerekin egiten duzue lan?

Merkatuko konpainia ezagun eta indartsuenekin egiten dugu lan (DKV, Reale, Mapfre, Allianz, Axa, Liberty, Plus

«Independienteak izanda, bezeroari baliorik onena eskaintzen diogu»

«Aseguruak ulertzeko filosofia ezberdina daukagu, bezeroari benetan laguntzea da gure helburua»

Ultra-Catalana Occidente, Generali, Zurich, etab.) eta guk, independenteak izanda, bezeroari baliorik onena ematen diona eskaintzen diogu.

Prezioa edo kalitatea?

Duda barik kalitatea eta gero ahal bada prezioa, askoz hobeto. Batzuetan biak lortzeko aukera dago, Coinbroker-etik beti bezeroari baliorik onena ematen dion aukera proposatuko diogu. Prezio hobek ematen dituzten konpainiak egon arren, produktuaren kalitatean oinarritzen da gure eskaintza.

Beste zerbait gehitu nahiko zenukete?

Eskerrak eman nahiko genizkieke guran konfidantza izan duten guztiei. Egoera zail honetan, gure onena ematen saiatu gara, eta jendeak eskertu egin digula ikusi dugu, guran konfidantza jarritz.



LANDER DIAZ DE GEREÑU / ULMA Taldeko lehendakaria

"Orain arte ikusi dugunagatik, badirudi krisi honek ez digula hainbeste erasango, baina goiz da oraindik ondorioak ateratzeko"

ULMA Taldeko lehendakaria da Lander Diaz de Gereñu (Oñati, 1976) iazko ekainaz geroztik. Packaging kooperatibako burua ere bada joandako bost urteotan. Berak azaldu digu zein den ULMA Taldeko negozioen egoera, zenbateraino erasan dien Covid-19aren krisiak, eta zein diren esku artean dituzten proiektuak



Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60

✉ etxian@etxian.net
www.etxian.net  



Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

Packaging-eko presidente karguan lau urte egin ostean, Ulma Taldeko lehendakaritza hartu zenuen iazko ekainean. Zer moduz ardura berrian?

Ondo. Hasieran ez zen erraza izan kargu biak batera eramatea, baina, poliki poliki, ari naiz neurria hartzen. Zoritxarrez, lurreratzen hasita nengoenean Covid-19a iritsi zen eta, nolabait esatearren, lurra hartzeko pista kendu didate.

ULMA Taldeko kooperatibak autonomoak direla kontuan hartuz, zein dira lehendakariaren egiteko eta ardura nagusiak?

Kontseilu Errektorea koordinatzea da nire eginkizun nagusia; Taldean dauden negozioetako presidentekin harremanetan egotea eta, beharra dagoenean, laguntza ematea. Kooperatiba bakoitza autonomia da, bai, baina, esaterako, finantziario arloa, Talde mailan kudeatzen ditugu.

Bestalde, ezin dugu ahaztu ULMA Taldeak balio eta printzipio jakin batzuk dituela, eta gure ardura da horiek transmititzea eta presente edukitzea eguneroko jardunean.

Covid-19ak gogor astindu du gure gizartea, ez bakarrik osasun mailan, baita ekonomian ere. Nola eragin dio Ulma Taldeari?

Ezberdina izan da eragina, negozioen arabera. *Packaging*, adibidez, oso bideratuta dago elikagaien eta farmazien arloan, eta horiek ez dira geratu. Beste, negozio batzuetan, aldiz, ez da lan berririk sartu, baina aurretik zeukaten lan karga. Eraikuntza arloan berreskuratzen hasi gara bere momentuan geldi geratu ziren proiektu batzuk.

Neurri batean edo bestean denoi eragin digu, eta garbi dago urte amaierako emaitzak ez direla izango aurreikusitakoak bezain onak. Ari gara kudeaketa planak egoera berrira moldatzen, baina oraindik goizegi da Covid 19aren eragina kuantifikatzeko.

Gu, zorionez, sektore anitzeko talde bat gara (gasa, eraikuntza, enbalajea, logistika, teknologia berriak, meatzaritza...) eta gerta liteke sektoreren bat kaltetuta egotea, baina baditugu elkartasun mekanismoak, altxortegi edo finantziario arazoak dituzten kooperatibei laguntzeko, eta horrela errazagoa da oreka mantentzea.

Enplegu mailan erregulazio edo bestelako neurririk hartu behar izan al duzue?

Lana gutxitu den kooperatibetan behin-behineko lanpostu batzuk kendu behar izan ditugu, baina ez dugu gorabehera handirik izan. Guk eskulan kualifikatua behar izaten dugu, eta, beraz, zuhurtzia handiz jokatzeko formazioa edo esperientzia jaso duen langile bat kaleratu baino lehen. Gauzak oso gaizki egon behar dira murrizketak egiteko.

Kanpotik ikusita, badirudi 2008ko krisia larriagoa izan zela ULMA Taldearentzat.

Orain arte ikusi dugunagatik, badirudi oraingo krisiak ez digula hainbeste erasango, baina, esan bezala, goiz da oraindik ondorioak ateratzeko.

Aurreko krisia kapitalak eragin zuen, eta oraingo honetan gehiago da produkzio mailakoa. Txina da egun gure fabrika eta hura gelditu zenean, bat-batean Europa osoa geratu zen hornidura gabe, lehengai barik, oinarriko produktu barik.

Beraz, krisi hau desberdina da, baina, esan bezala, ikusteko dago oraindik noiz amaituko den; orain arteko eraginak baino gehiago kezkatzen nau hurrengo hilabeteetako egoerak eta birusaren bilakaerak, horrek markatuko baitu ekonomiaren susperraldiaren erritmoa.

Zein dira zuen aurreikuspenak?

Zaila da aurreikuspenak egitea, osasun egoeraren arabera izango baita. Gure beldurra da birusaren berragerpen handi bat gertatzea eta geldialdi berri bat

egotea. Mugikortasuna murriztea arazo handia da gure negozio batzuentzat, zenbait makina eta proiektu saltzeko bezeroaren etxera joan beharra dagoelako; dena ezin da egin telematikoki. Eta, bestalde, gure bezeroak gelditzen badira, kaltea handia izan daiteke.

Gainera, beldurraren faktorea hor dago. Ziurgabetasun egoera honetan proiektu eta inbertsio handiak geratu egiten dira, egoeraren bilakaera ikusi arte.

Munduko 80 bat herrialdetan du presentzia ULMA Taldeak. Ba al dago bereziki kezkatzen zaituen zonalderik?

Espainiako egoerak kezkatzen nau, merkatu inportantea delako guretzat, baina Estatu Batuetan ere bezero inportanteak ditugu, eta hango datuak oso kezgarriak dira. Zer esanik ez Hego Amerikakoak. Une honetan Europa suspertzen ari dela ematen du, baina egoera oso aldakorra da eta ikusi egin behar zenbat luzatzen den egoera hau. Hori da gakoa.

Covid-ak eragindako krisiaren aurrean bere alderdi solidarioa ere erakutsi nahi izan du ULMA Taldeak, lankidetzaren proiektu ezberdinetan parte hartuz.

Bai, osasun arloan maskarilla premia handia zegoenean musukoak garbitu, esterilizatu eta berrerrabiltzea helburu zuen proiektu batean parte hartu genuen. Oviedoko unibertsitateak sustatutako proiektu bat zen eta horretarako propio diseinatutako makina biltzaile bat diseinatu eta laga zion Ulma Packaging-ek. Elikagaiak banatzen dituen beste elkarte batentzako makina bat ere prestatu genuen.

Bestalde, ekarpen bereziak egin dizkiegu Caritas elkarteari, Bergarako Elikagaien Bankuari eta eskualde mailako Gurutze Gorriari, behar handiena duten herritarren alde egiten ari diren lana babesteko asmoz. Ekimen berriak martxan jartzeko aukerak ere aztertzen ari gara.

(hurrengo orrira)



EMAITZA ONAK

Martxora arte nahiko ondo zihoazen ULMA Taldeko negozio gehienak. 2019ko emaitzak aspaldi ikusten ez ziren bezalakoak izan ziren

ZIURGABEZIA

Neurri batean edo bestean denoi eragin digu krisiak, baina orain artekoak baino gehiago kezkatzen nau hurrengo hilabeteetako egoerak eta birusaren bilakaerak

ETORKIZUNEN PROIEKTUAK**Munazategiko industria eremua garatzeko asmoa adierazi du ULMA Taldeak. Zein helburu-ekin? Zein epetan?**

Bere garaian Ulma Eraikuntzak erosi zuen lursail hori, baina krisiaren ondorioz etenda geratu zen hango garapena. Eta orain, taldeko kooperatiba ezberdinek dituzten beharrak kontuan hartuz, lursaila hirutan banatzea erabaki dugu.

Asmoa da pabilioi berri bana eraikitzea Eraikuntza, Agricola eta Packaging negozioien beharrei erantzuteko. Lehenbailehen martxan jartzea zen asmoa, baina oraingo egoeran tentuz jokatu nahi dugu. Tramiteak arrerata ditugu, baina negozio bakoitzak esan beharko du zein den une egokia proiektua aurrera ateratzeko. Edozein modutan, gauza arrarorik gertatzen ez bada, lehentxoago edo berandutxoago, Munazategi eremua garatzeko asmoa dugu.

Horretarako, lehenengo errotonda bat eraiki behar duzue Ulma Eraikuntza lantegiko sarreran.

Bai, hala da. Munazategi gunerako sarrera eta irteera hortik bideratuko da eta, beraz, trafikoa antolatu beharra dago gunere horretan. Aukera ezberdinak aztertu ostean, uste dugu biribilgunea bat egitea dela irtenbiderik egokiena eta garbiena segurtasun aldetik. Proiektua oso arrerata dago, Foru Aldundiak eta Oñatiko udalak ere begi onez ikuste dute eta, ustekaberik ezean, aurten bertan hasiko dira lanak. Proiektua geuk idatzi dugu eta obraren kosturik handiena ere geure gain hartuko dugu. Udalak, bere aldetik, Garibai auzoko baserrietarako sarbide segurua egokitzeko aprobetxatuko du obra hau.

Uste dut errotonda hori oso mesedegarria izango dela, ez bakarrik Ulma Eraikuntzako eta Munazategira etorriko diren langileentzat, baita Oñatiko beste enpresa batzuetara etortzen direnentzat, edota herritik kanpora



Munazategin Packaging, Eraikuntza eta Agricola negozioetako pabilioi bana eraikiko du Ulmak.

joaten direnentzat ere, trafiko handiko bidea baita.

Osinurdineko poligonoan ere biltegia eraikitzeke asmoa omen dauka Ulma Polimerok.

Bai. Drainatze-kanalen jardura hazkunde handia izaten ari da, eta hurrengo urteetarako aurreikuspenak ere onak direnez, kooperatibak beharrezkoa ikusten du biltegi bat eraikitzea, stock-a bermatu eta entregak garaiz egin ahal izateko. Ulma Polimeroren aldamenean Ulma Eraikuntzaren biltegi txiki bat dagoenez, akordio batera iritsi dira eta bertan eraikiko da biltegi berria.

Badirudi, beraz, osasuntsu daudela Ulma Taldeko kooperatibak.

Martxotik hona beldur pittin bat sartu zaigu denoi Covid-19aren ondorioz, baina, egiari zor, ordura arte nahiko ondo zihoazen Ulma Taldeko negozioerik gehienak. 2019ko emaitzak azken urteetan ikusten ez ziren modukoak izan ziren. Eraikuntzak eta Packaging-ek bereziki errentagarritasun handiak lortu zituzten, eta beste negozio batzuen emaitzak ere onak izan ziren, beren tamainan.

Gaur egun zenbat negozio edo kooperatiba biltzen ditu ULMA Taldeak?

Oraintsu arte zortzi ginen (Agri-

cola, Architectural Solutions, Orga Jasotzaileak, Construction, Conveyor Components, Handling Systems, Packaging eta Piping), baina duela bi urte onartu zen bederatzigarrena (*Embedded Solutions*) sortzea. Oraindik legezko tramite batzuk egitea falta zaio, baina barne funtzionamenduan Taldeko bederatzigarren kooperatiba bezala hartzen dugu jada.

Ari al zarete jardura edo negozio aukera berriak aztertzen?

Bai. Ulma Taldeak bere sustapen eta berrikuntza zentroa dauka negozio aukera berriak aztertzeko, eta azken urteotan osasun arloko proiektuetan zentratuta dabil. Erretinopatia diabetikoa garai detektatzeko soluzio bat garatu dugu. Diabetesak begietan eragiten duen gaixotasun nagusia da erretinopatia, eta ikusmen galera edo itsutasuna eragin dezake, garai detektatzen ez bada. Eta horixe da, hain zuzen, Ulma garatzen ari den teknologiaren helburua. Begiko erretinari argazki digital bat aterata, minutu gutxitan eta fidagarritasun handiz lesioak detektatzeko gai den tresna garatu dugu, lehen arretako anbulatorioetan erabili ahal izateko modukoa. Osakidetzari saldu dizkiogu unitate batzuk, eta geure osasun zerbitzuak ere ari dira

MUNAZATEGI
Munazategiko industria gunea garatzeko asmoa dugu, Eraikuntza, Agricola eta Packaging negozioetarako pabilioi bana eraikita

BIRIBILGUNEA
Ulma Eraikuntza lantegiko sarreran errotonda bat eraikiko dugu, Munazategi gunerako sarrera-irteerako trafikoa antolatzeko

probak egiten. Ikusiko dugu zein bide egiten duen.

Edozein modutan, IMEI (Irudi Mediko Ez Inbaditzailea) izeneko ekimen zabalago baten lehen urratsa baino ez da. Gure asmoa da plataforma integral bat garatzea, irudi medikoen analisisan oinarrituta hainbat gaixotasun garaiz diagnostikatu ahal izateko.

Trantsizio energetikoa eta digitalizazioa dira enpresen erronka nagusiak etorkizunera begira. Ildo horretan, Europak esan du zigortu egingo dituela erabilera bakarrek plastikozko ontziak. Nola eragin diezaioke horrek Packaging bezalako negozioei?

Packaging-en aspaldi gabiltza aukera ezberdinak aztertzen: plastiko biodegradagarriak erabiltzea, ontzien tamaina murriztea, plastikoaren ordez kartoia erabiltzea... Kontua da, produktu batzuk (medikamentuak, zenbait elikagai...) ontziratu egin behar

direla, nahitaez, eta, beraz, soluzioak aurkitu beharko ditugu iraunkortasunaren ikuspuntutik.

Baina Packaging-i bakarrik ez. Gas-petrolioaren sektorerako edo meatzaritzara edo obra zibil handietara bideratuta dauden negozioei ere eragiten die jasangarritasunak, eta denok eman behar ditugu urratsak norabide horretan.

Talde mailan ere ari gara urrats txikiak ematen, langileen mugikortasun jasangarria sustatuz, erabilera bakarrek plastikozkoak baztertuz eta argindar kontsumoa murriztuz, besteak beste.

Digitalizazioari dagokionez, lehendik zetorren prozesu bat zen, beharrezkoa, era digitalean gauzak azkarrago eta hobeto egiten direlako, baina Covid-ak prozesu hori azkartzea ekarri du. Beldurra ematen ziguten erabaki batzuk hartu behar izan ditugu, lantaldeak oso ondo erantzun du, eta Covid-ak ezer ona ekarri badu, horixe izan dela uste dut, atek ireki dizkigula, alegia.



IKERKETA Negozio aukera berriak aztertzen ari gara osasun arloan. Hala, erretinopatia diabetikoa garaiz detekatu ahal izateko soluzio bat garatu dugu

Kooperatiben lege berria onartu zuen Jaurilaritzak iazko abenduan. Zer iruditzen zaizu?

Oro har, ondo. Aurreko legea 1993koa zen eta beharrezkoa zen gaur egungo errealitatera egokitzea. Alde batetik, kooperatibetan *de facto* egiten ziren gauza asko legean jasota geratu dira, eta horrek segurtasun juridikoa ematen du.

Bestalde, merkatu globalean lehiakorragoak izaten lagunduko diguten zenbait berrietasun ere badakar legeak, besteak beste, bazkide ez diren langileen gehieneko kopurua %25etik %30era handitzen du eta horrek malgutasuna ematen dio kooperatibari. Garbi dago gizarte ekimeneko enpresak garela eta enplegu kooperatiboa sortzea dela helburua, baina horretarako merkatu globalean lehiatu beharra daukagu eta errentagarriak izan, eredu kooperatiboa sendotu nahi badugu. ■



Ingelesko Akademia
Listening Speaking Reading Writing

Maite Aiestui Kortabarria
20 urte baino gehiagoko esperientzia irakaskuntzan



Distantziamendua eta higie-ne neurriak bermatuta

- Hizkuntzaren 4 alderdiak jorratuko dira
- Haurrak: 4 urtetik gora: jolasak, ipuinak...
- Haur koskorragoak eta gazteak: hizkuntza sakonago landu nahi dutenentzat (azterketa ofizialearako prestakuntza) edota eskolan landutakoa indartzeko klaseak
- Helduak: Oinarrizko ezagutza, mintzamen taldeak...
- Talde txikiak 6-8
- Teknologia berriak erabiliko dira

- Irisgarritasuna
- 2 Komun, bat dibertsitate funtzionala duten ikasleentzat
- Kalegoienako parking-a, ondoan



Izen ematea
ZABALIK

Oraindik badaude
plazak!

943 53 36 57
4sgoiena@gmail.com

KORTAZUBI

Auzolanaren emaitza

► Larrañako auzotarrek zubia eraiki dute Korta erreka gainean

Ondoko argazkian ikusten den zubi ederra eraiki dute Larrañako auzotarrek Korta erreka gainean. Orain dela 30 bat urtera arte egurrezko pasabide txiki bat egon omen zen bertan, baina erreka hazita zetorrenean ezinezkoa izaten zen alde batetik bestera igarotzea.

Iazko auzo-batzarrean pentsatu zuten zubi berria eraikitzea. Oinarri sendoa aurkitu ostean, auzoko jaien ondoren, abuztuaren 13an, hasi ziren lanean, eta urte bukaerarako amaitu. Bostzazpi lagunek (batez ere *Aramaixuena*, *Erbiña bi* eta *Izaro* baserrietakoek) jardun zuten lanean, astelehenetik ostiralera, egunero lau orduz.

Inguruko harlangaitza erabiliz jaso dute zubia, lehengo erara, arku edo pasabideko zoruan ikus daitekeen moduan. Materialetan 4.000 euro inguru gastatu dituzte, baina udalaren diru ekarpena espero dute.

Zubi berriari esker auzoko gune ezberdinak (Isuski, Aterpea, Arkapoloste...) lotuta geratu dira eta herritar askok, San Lorentzo, Olakua eta Ugarkalde aldekoek bereziki, pasealeku berria deskubritu dute.

Ordu eta izerdi asko bota dituzte auzolanean aritu diren lagunak, baina gustura daude emaitzarekin. Ondorengo belaunaldientzat hor geratuko da eta, gainera, herritar askoren gozamenerako ere badela ikusita, hainbat hobe.



Zubia eraiki aurreko egoera eta auzolaneko irudiak dituzue goiko argazkietan. Eskuman berriz, zubiaren gainean ipini duten oroitarria, Joxe Mari 'Aramaixuena'k tailatuta, zubiaren izena, data eta katamixar baten irudiarekin, oso ugariak baitira inguru horretan.



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 11 15 • www.batuak.com

► **IKASTAROA** / Emakumeen Jabetze Eskola



Irailaren 15 eta 17an egingo da ikastaroa, kultur etxean, 9:30-12:30. Doakoa da.

'Komunikazio digitalaren aukerak'

Konfinamendu garaian halaberrez ikasi behar izan dugu beste era batera komunikatzen, eta agerian geratu da genero, adin eta klase sozialen arteko arrakala digitala. Ikastaro honen helburua da telefonoa eta ordenagailu baliatuz, bideokonferentzia bidez komunikatzeko dauden aukerak ezagutzea. Oinarrizko ikastaroa izango da. Emakumeei zuzenduta dago eta doakoa da. Izena emateko Berdintasun departamentura deitu edo idatzi behar da: berdintasuna@onati.eus / **943780411 (010)**

Emakume migratuen egoeraren diagnostikoa egingo da Oñatin

► Dazkatzen beharrak ezagutu, sareak sendotu eta parte hartze sozial eta politikoa indartzea da helburua

Udaleko Berdintasun sailaren dirulaguntza baten bidez, Oñatin bizi diren emakume migratuek bizi duten egoeraren diagnostikoa egingo du I.M.M.E. (*Integración de Mujeres Musulmanas en Euskadi*) elkarteak. Oñatira beste herrialde batzuetatik bizitzera etorrirako emakumeen egoera sozial eta ekonomikoa, espektatibak eta beharrak ezagutu nahi dira, horien araberako lan ildoak zehazteko eta, azken batean, emakume etorkinen integrazioa bideratu eta beraien parte hartze sozial eta politikoa indartzeko.




Claudia Serna

Jatorriz kolonbiarra den Claudia Serna abokatuak egingo du datu bilketa eta diagnostikoa. Duela hiru urte Lege Soziologia Institutuko masterra egitera etorri zen Claudia, eta gaur egun Oñatin bizi da.

Elkarrizketa pertsonalen eta taldekako saioen bidez, ahalik eta emakume gehienengana iritsi nahi du Claudiak. Irailean hasi eta azarora bitartean egingo ditu galdetegiak eta elkarrizketa saioak, eta asmoa da datorren urte hasierarako aurkeztea publikoki lanaren emaitza. Diagnostikoan parte hartu nahi duten emakumeek **661 009 932** whatsapp zenbakira edota udaleko Berdintasun sailera (943780411) deitu dezakete.

Irailaren erdian hasiko dira Olakuako 2. areako urbanizazioa berritzeko lanak

Ugarte Eraikuntza enpresak egingo ditu lanak eta hiru hilabeteko epean burutzea aurreikusten da



Irudian ikus daiteke zein eremutan egingo diren fase honetako lanak



Uztailean eraitsi zuten Azkoagaineko aldagela eta bulegoen eraikin zaharra

Denboraldi hasierarako prest egongo da aldagela eta bulegoen eraikin modular berria

Azkoagaineko aldagelak, komuna biltegia eta bulegoak hartzen zituen eraikin zaharra eraitsi egin dute, ez zituelako betetzen gutxienezko osasun baldintzak. Uztailean egin ziren eraiketako lanak eta, orain, egitura modular berria jarriko dute leku berean. Bi solairu izango ditu estruktura berriak, eta honako espazioak: kirol taldeentzako bi aldagela, epaileentzako bat, biltegia, garbitokia, komunak, bulegoa, bilera gela eta fisioterapia gela. Udalak ALGECO Construcciones Modulares enpresari esleitu dio egitura modular berria hornitu eta instalatzeko lanak 70.795 eurotan (+BEZ). Datozen egunetan egingo da kontratuaren behin betiko esleipena eta hortik aurrera 30 eguneko epea izango du enpresak lanak burutzeko.

Azken orduko aldaketarik ez bada, irailaren erdian hasiko dira Olakuako auzoko urbanizazioa berritzeko bigarren faseko lanak. Ezkerreko planoan erakusten den moduan, 2 eta 3 zenbakidun etxe-blokeen inguruan egingo dira irisgarritasuna edo akzesibilitatea hobetzeko lanak.

Udalaren enkarguz A2B Arquitectos enpresak idatzitako proiektuaren arabera, 2-A / 2-B eta 3-A / 3-B atarien inguruan dauden oinezkoen ibilbideak, zebra-bideak eta mugikortasun urria duten pertsonentzako aparkalekuak berrituko dituzte, irisgarritasun arauetara egokitzeko edo, araua guztiz bete ezin den kasuetan, gaur egungo egoera nabarmen hobetzeko.

Irudiak erakusten duen moduan, 2 eta 3 zenbakidun etxe-blokeen arteko espaloiak zabaldu egingo dira, batez ere 3-A eta 3-B atarien aldean, gaur egun igogailuaren kaxak eten egiten baitu espaloia, eta plataforma bakarra egokituko da kale osoan, galtzada eta espaloiak altura berean dituenak.

Mantendu egingo dira bertan dauden lau aparkalekuak, berritu egingo dira alde bateko zein besteko eserlekuak, eta zintarria ipiniko da parterre edo berdegunearen bueltan, ikusmen urria duten pertsonen orientazioa errazteko. Horrez gain, 2-A eta 2-B etxeen aldamenetako ibilbideak ere berritu egingo dira, zoladura berria jarri eta bidea oztopatzen duten bide-seinaleak eta farolak lekualdatu.

Gainera, bi zebra-pasagune berri egokituko dira, Txiki-Txokora eta autobus geltokira doazen oinezkoen bideekin konexioa bermatuz modu seguru eta irisgarrian.

Udalak Ugarte eraikuntza enpresari esleitu dizkio lanak 139.909 eurotan (+BEZ), eta hiru hilabeteko epean burutzea aurreikusten da.



Ugarkaldeko jolas parkea estaltzeko lanak lizitaziora atera ditu udalak

Errekalden soka bidezko jolas eremua egokituko du

Ia 300 mila euro bideratuko ditu aurrean udalak herrian dauden haurren jolas-parkeak hobetu eta berriak sortzera. Alde batetik, estalkia ipiniko dio Ugarkaldeko jolaslekuari. Gogoratu, hauxe izan zela 'Partaidetzako Aurrekontuak 2019-2020' prozesuan herritarrek hobetsitako proposamenen artean bigarrena.

Udalak *Taperstudio Arki-tektura* enpresari enkargatu zion Ugarkaldeko jolas eremua estaltzeko proiektuaren idazketa eta lanen zuzendaritza 14.950 eurotan, eta orain lizitaziora atera ditu estalkia eraikitzeko lanak 175.831 eurotan (BEZ barne).

Goiko irudiek erakusten duten moduan, altzairuzko hodiz eta ETFE motako polimeroz egindako estalkia izango da, arku formako sigi-saga eratuz. Denera 170 m²-ko azalera hartuko du egiturak, 4,40 eta 6,45 metro arteko altuera aldakorrarekin. Argiteria ere jarriko da. Azken jolasa estalkitik kanpora geldituko da, garaiera desberdineko bigarren gune bat bezala ulertzen baita.

Udalaren asmoa da azaroan hasia lanekin eta otsailan amaituta egotea.

SOKA-JOLASAK ERREKALDEN

Errekalde eta Mendiko Kale arteko plazatxoan soka bidezko jolas gunea egokituko du udalak. Egun dauden jolas elementuak kendu eta kupula formako sokadun egitura instalatuko da bertan hiru arkuz (sei beso) osatua. Zorua ere berritu egingo da, era honetako jolas eremuetarako araudiak ezartzen dituen ezugarrien arabera.

Hau ere, igotzeko eta oreka mantentzeko jolasen gune bat sortzea 'Partaidetzako Aurrekontuak 2019-2020' prozesuan herritarrek hautatutako 16 proposamenetako bat izan zen.

Jolas leku hau 6-14 urte arteko haur eta gaztetxoei zuzenduta egongo da, eta aisialdiko aukera berriak eskainiko dizkie adin tarte horretako neska-mutikoei.

Udalak lizitaziora atera du jolas berriaren hornidura eta instalazioa 72.600 eurotan (BEZ barne). Lanak esleitzen direnetik hamabi asteko epea

egongo da lanak egiteko.

ZORU BERRIA ERREMENTARIN

Orain arte aipatutako lanez gain, herriko jolas-parkeen egoeraren azterketa egin du udalak, Garra S.L. enpresaren bidez. Denera 19 jolas-parke aztertu dituzte eta bakoitzean egin beharreko oinarriko mantentze eta konponketa lanak zehaztu.

Aurreneko lana, Erremontari plazako jolas-parkeko zorua berritzea izan da (10.915 €+BEZ), oso egoera kaskarrean zegoelako.

Horrez gain, beste hainbat konponketa eta mantentze lan egingo dira datozen asteetan herriko haur parke ezberdinetan. Oinarriko mantentze lan hauek beste 10.000 euroko aurrekontua dute eta Garra S.L. enpresak egingo ditu. ■



Errekaldeko plazatxoan instalatuko du udalak sokadun jolas-elementua; 8 m.-ko diametroa eta 4 m.-ko altuera izango duen kupula formako egitura,

Agintaldiko lehen urtearen balantze gazi-goza egin du EAJk

» Jarrera eraikitzailea izan dutela diote jeltzaleek, baina, oro har, elkarlanerako borondate gutxi ikusi dute gobernu taldearengan



Agintaldiko lehen urtearen balantze gazi-goza egin du EAJren udal taldeak. Jarrera eraikitzailearekin jarraitzen dutela esan dute jeltzaleek, ekarpenak eginez ordenantza fiskaletan, aurrekontuetan eta aukera duten guztietan. Ingurumena, ekonomia, gizarte politikak, berdintasuna, kultura edota euskararen arloan egindako ekarpenak azpimarratu dituzte.

Tamalez, baina, gobernu taldearen jarrera ez omen da izan nahi bezain positiboa, EAJren ustez. "Gure ekarpenak maiz ez ditu aintzat hartu, eta hori zilegi da, EH Bilduk gehiengoak duelako; baina, zenbait kasutan, gutxietsi ere egin ditu, eta hori ez da zilegi, herritar askoren ordezkaritza garelako" adierazi du Ainhoa Galdos bozeramaleak. EAJk ez du ikusi, oro har, elkarlanerako borondate handirik udal gobernuarengan, eta erabaki gehienak alkate-dekretuz onartu direla kritikatu du.

Arlo ekonomikoari dagokionez, 2019ko aurrekontuen betetze maila nahiko baxua izan dela adierazi du EAJk. "Inbertsioetarako aurreikusita zeuden 14 milioietatik 4,5 baino ez dira gauzatu". Eta udalaren zorpetze maila eta egoera ekonomikoa kontuan hartuz, plan finantzario baten beharra aldarrikatu dute, beste behin, jeltzaleek; "are gehiago COVID-19ak eragin-

dako krisiaren aurrean".

KRISI-MAHAIA

COVID-19ari aurre egiteko mahai bat sortzea proposatu zuen EAJk, eta positiboki baloratu dituzte udal gobernuarekin adostutako neurriak. "Hala ere, krisi-mahaian gure taldeak egindako ekarpena gutxietsiz alkateak publikoki egindako adierazpenek zapore gazi-goza utzi digu" gaineratu zuen Galdosek.

Garai zailak datozen arren, hurrengo hiru urteetan huteskunderik ez egoteak giroa lasaitzen lagunduko duen itzaropena adierazi du EAJk, "gu oñatiarren alde lan egiteko gaudelako, eta ez etengabeko konfrontazioan aritzeko".

ADIERAZPEN ASKATASUNA

EAJren udal taldeak elkartasun osoa adierazi dio Jose Mari Agirreri, komunikabide

batean bere iritzia emateagatik jasan behar izan duen egoeragatik. "Ez da zilegi inor seinatzea edo erasotzea bere iritzia publiko egiteagatik. Adierazpen askatasuna eta errespetua ezinbestekoak dira gure gizartean" amaitu zuen Galdosek.

Ondoko QRan irakur daiteke EAJren balantzea osorik.



ALDAKETAK 2020ko EGUTEGI FISKALEAN

Covid-19ak eragindako osasun krisiaren ondorioz 2020ko zerga egutegiak zenbait aldaketa izan ditu epemuga eta kobrantzei dagokienez, jarraian adierazten den moduan:

- **TRAKZIKO MEKANIKOKO IBIGAILUEN GAINEKO ZERGA (TMIZ)**

Ordaintzeko borondatezko epea **irailaren 15era** arte luzatu da

- **ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA (OHZ/IBI)**

Borondatezko epea **abuztuaren 1etik irailaren 15era** izango da.

Helbideratuta dutenei borondatezko epearen azken egunean kargatuko zaie. **OHARRA:** Udaletxean emandako helbideraketa kontua zuzena ez bada, ezeztatuta baldin badago edo aipatutako datan ordainketa eragotziko duen edozein arrazaoi badago, borondatezko epea bukatu baino lehen udalarekin harremanetan jarri behar da, errekarurik ez izateko.

- **IBI IRAUNKORRA, GARAJEKO SARRERA TASA eta KANPOSANTUA**

Helbideratuen kargu eguna **urriaren 15a** izango da

 **Mekalki**
S. Coop. mekanizatuak
Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es

BADATOR EUSKARALDIA-2020

Ariguneak sortzera animatzeko bideoa zabaldu dute herriko hogeitak entitateek

» Ahobizi edo belarriprest gisa ez ezik, taldean parte hartu ahal izango dugu aurten arigune-en bidez

» Entitateek (lantegiak, dendak, kultura, kirola nahiz gizarte arloko elkarteak...) irailaren 27ra arteko epea dute izena emateko

Badator aurten ere EUSKARALDIA, euskara ulertzen duten hiztunen arteko hizkuntza ohiturak aldatzeko helburua duen ariketa soziala. **Azaroaren 20tik abenduaren 4ra** egingo da aurten Euskaraldia, eta berrietasun nabarmen batekin dator: norbanako bezala (**ahobizi** edo **belarriprest** gisa) ez ezik, taldean parte hartzeko aukera ere izango dugu **arigune**-en bidez.

Ariguneak uneoro euskaraz aritzeko aukera bermatzen duten guneak dira. Arigune bakoitzeko kideek modu kolektiboan egingo dute hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa; batzuk ahobizi izango dira eta besteak belarriprest.

Mota guztietako entitateek (erakunde publikoak, gizarte eragileak, enpresak, kooperatibak kultur eta kirol elkarteak...) parte hartu ahal izango dute Euskaraldian, ariguneren bat sortzen badute. Bi motako ariguneak bereiziko dira: **barne-ariguneak** (entitate bateko kideek euren arteko hizkuntza-ohiturak aldatzeko aurrera pausoak ematea adostuko dute) eta **kanpo-ariguneak** (herritarrekiko harreman guneetan dauden pertsonen —harrera postuak, supermerkatuetako kutzak, telefono bidezko arreta arduradunak, tabernariak, dendariak...— osatzen dituzte. Oñatin dagoeneko 20tik gora entitateek eman dute izena (ikus ondoko bideoa).

Euskaraldian norbanako gisa parte hartzeko izen-ematea urrian zabalduko da, baina arigune gisa aritzeko irailaren 27a baino lehen eman behar da izena. Informazioa jasotzeko edo zalantzak argitzeko idatzi **onati@euskaraladia.eus** helbidera.



Ondoko QRan ikus dezakezu Oñatiko hogeitak entitateek grabatu duten bideoa, Euskaraldian parte hartzeko animatzeko

GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarten administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati

PINTURAS
URBIA
MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

Batxilergo Duala amaitu dute Elkar Heziko hamar ikaslek

» Hemengo batxilergoarekin batera, Estatu Batuetako *High School* titulua eskuratu dute



Duela hiru urte hasi zen Elkar Hezi ikastetxea **Batxilergo Duala** egiteko aukera eskaintzen, eta, dagoeneko hamar ikaslek amaitu dute formazio aldi berezi hau.

Hemengo batxilergoko ikasketak egiten dituzten bitartean, Ameriketako Estatu Batuetako (AEB) curriculumeko hainbat ikasgai landu eta titulu bikoitza eskuratzeko aukera ematen du Batxilergo Dualak: Espainiar estatuko batxilergo titulua eta AEBetako HIGH SCHOOL delakoa.

Elkar Hezi ikastetxean DBH-3 hastera doazen ikasleei eskaintzen zaie Batxilergo Duala egiteko aukera, eta gero ikasle bakoitzak aukeratzen du bi edo hiru ikasturtetan osatu nahi duen formazio aldia.

Horretarako, ikasturte hasieran ingeleseko azterketa bat egiten dute, programa jarraitzeko maila nahikoa dutela ziurtatzeko, eta hemengo ikasketak gaintzeaz gain, AEBko batxilergoko zenbait ikasgai landu behar dituzte: Estatu Batuetako historia, gobernua eta ekonomia; Bizitza kudeatzeko trebetasunak, eta ondorengo gai hauetako bat aukeran (Kriminologia, Psikologia, Argazkilaritza digitala, Ingeniaritza eta Teknologiako edukiak, Unibertsitaterako prestakuntza eta Ingelesa).

Hango ikasketak on line egiten dira, banakako zein taldekako bideokonferentzia bidez, eta gai bakoitzari dagozkion lanak aurkeztuz. AEBetako *Academica International Studies* erakundea arduratzen da ikasleen formazioaz, eta hauen ebaluazio jarraitua egiten dute, Oñatin programa koordinatzen duen irakaslearekin elkarlanean, beti ere.

Diploma Dualaren helburu nagusietako bat ingeles maila aurreratua lortzea da, ikasgai guztiak nahiz irakasleekiko harremanak ingelesez direlako, ahoz eta idatziz. Baina, horrez gain, oso lagungarria da ikaskuntza digitaleko teknologia aurreratuenetan trebatzeko, jakintza esparrua zabaltzeko, eta autonomia pertsonala garatzeko (erantzukizuna, heldutasuna, denboraren kudeaketa, ingurune desberdin eta multikulturaletan lan egiteko gaitasuna...).

Igeltsero ofizial plaza betetzeko deialdia egin du udalak

Hutsik dagoen igeltsero ofizial lanpostua betetzeko deialdia egin du udalak. Lehiakietan oposizioan parte hartzeko 1. Lanbide Heziketa titulua eskatzen da, eraikuntza eta obra zibilen arloan. 2. hizkuntz eskakizun maila eta B motako gidabaimena ere eskatzen dira. Abuztuaren 12an argitaratu zen deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta estatu mailako aldizkarian argitaratzen denetik aurrera 20 egun balioduneko epea irekiko da eskaerak aurkezteko.

IKUSMEN MURRIZTUA Orain, inoiz baino gehiago, kontuan izan



Datozen egunetan beheko irudikoa bezalako kartelak ikusiko ditugu gure herriko kale, denda eta eraikin publikoetan. '**Orain, inoiz baino gehiago, kontuan izan**' lelopean, '**Ikusmen Murriztua DUT**' bereizgarriaren esanahiaren inguruko sentsibilizazio kanpaina jarri du abian Begisare elkarteak, orain, inoiz baino inportanteagoa baita ikusmen arazoak dituzten pertsonen laguntzea.

Ikusmen murriztua duten pertsonen itxuraz osasuntsuak diruditen begiak dauzkate, baina %30etik beherako ikusmena dute, eta zailtasun handiak dituzte eguneroko hainbat gauza egiteko: kartelak irakurtzeko, gauzak esku artean hartzeko, jende-ilarak zaintzeko, eskailerak igotzeko edo jaisteko...

Ondorioz, oso zaila egiten zaie COVID-19ak eskatzen duen pertsonen arteko segurtasun distantziak mantentzea. Gainera, ukimena sarriago erabil behar izaten dutenez, kutsatzeko arriskua ere handiagoa da, eta tentsio handiagoa sentitzen dute. Horregatik, kanpaina honen bidez, laguntza eskatu nahi diete herritarrei, 'Ikusmen Murriztua DUT' bereizgarria daramaten pertsonen laguntzeko behar den guztietan. Bideo labur bat ere grabatu dute (ikus QR-an), nola lagundu dezakegun azalduz.



Catalana Occidente

Mikel Egaña Urrutia
Aseguruak

Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

✓ Heriotza	✓ Istripuak	✓ Etxebizitza
✓ Autoak	✓ Ontziak	✓ Aurrezkia
✓ Bizitza	✓ Osasuna	✓ Laborantza

Helbidea: Motxon 5, behea
638 16 79 84
mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com

Almaraz
Inmobiliari gestioa

Tel.: 679411444
www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz

"Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilioi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei diezaguzu".

Gure beharra baduzu,
ondo-ondoan gaituzu.
Arrasaten.

Hain ondo zaindu nahi
zaitugunez, Arrasaten bertan
ere artatuko zaitu Zuatzu
klinikako espezialista-taldeak,
20 urtetik gorako esperientzia
duenak.

Ginekologia eta obstetrizia.
Jaio aurreko diagnostikoa.
Bularretako patologia.
Laguntza bidezko ugalketa.

Nafarroa Etorbidea, 4 (bajo)
20500 Mondragón
943 792 018



www.clinicazuatzu.com



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlanean izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Oñatiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Aratz Losada

Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

TXATXILIPURDITIK, AGUR UDALEKUEI

Maddi Txintxurreta, Leire Anduaga, Ane Anduaga, Alazne Agirre, Jone Ojea, Oihana Ugarte, Xabi Pascual, Igor Tomé, Amaia Goitia eta Leire Zumalde

Aurten, zazpi urteren ondoren, Txatxilipurdi elkarteko kideok Oñatiko udaleku irekiak antolatu ditugun azken urtea izan da. Izan ere, hurrengo urtetik aurrera Oñatiko Udalakkudeatuko ditu. Urte hauetan guztietan Oñatin, haurrentzako euskarazko aisialdi hezitzailea eskaintzeko lanetan aritu gara. Ibilbide honetan Oñatiko haur, familia, hezitzaile eta Txatxilipurdi elkartearekin batera, ikasten joan gara.

Hasiera hasieratik gure udalekuek protagonista haurrak izatea nahi izan dugu, beraien hitza eta ezaugarriak gure antolakuntzaren oinarri izanik. Horretaz gain, azken urteetan beste lan ildo batzuk eraikitzen joan gara, eta poliki-poliki ereindako hazietatik landareak hazi ditugu.

Eskerrak eman nahi dizkizuegu erakutsi duzuen konpromezuagatik eta gugan jarritako konfiantzagatik. Jakitun gara, landare hauek zuek gabe ezin izango lirakeela hazi.

Urte honetan, konfinamenduak gogor kolpatu ditu haurrak, nerabeak eta baita euskara bera ere. Horregatik, inoiz baino behar handiago sentitzen dugu euskarazko aisialdi hezitzaile batez gozatzeko. Udalekuei agur esango diegun arren, Txaloka ludoteka eta Txipistin zerbitzuetik helburu horiek lortzeko lanean jarraituko dugu, haurtzaroko eta nerabezaroko eskubideak bermatu daitezten.

MILA ESKER guztiagatik.

Urtean zehar antolatzen ditugun ekintza ezberdinetan elkar ikusiko dugulakoan.

ADIERAZPEN ASKATASUNA, BETI! OÑATIN ERE BAI!

Amaia Erostarbe Letamendi, Eusko Alderdi Jeltzalearen zinegotzia Oñatiko udalean

Uztailaren 11, zapatua, eguerdiko ordubata inguruan, Arantzazutik oinez bueltan adiskideekin, hara non ikusi genituen gure etxearen hormako paretan hitz hauek: JOSE MARI, BERTSOLARI!

Spray beltza, letra larriak, hizki txukunak eta eskolatuak, errima, puntuazio-eta harridura-markak ederki idatzita...! Pintada ideologikoa? Ideologia-pintada? Antza, bai! Zapatuan, egun osoan eta gau osoan egon ziren hitz beltz horiek horman; 24 ordu baino gehiago. Hiru aldiz (larunbat eguerdian, arratsaldean eta

gauko hamarrak aldean) deitu genion Oñatiko alkate Izaro Elorzari EAJ alderdiaren hiru zinegotzik, eta eskatu genion, mesedez, hark egin ez zuen pintada lehenbailehen kentzeko. Hala ere, 24 ordu baino gehiago egon ziren hitz larri beltz horiek gure etxe horman! Domeka goizean garbitu zuten paretak; arrasto guztiak kendu zituzten. Mila esker!

Esango genuke spray beltzarekin egindako pintada hori uztaillaren 3an Goienan GUTUNAK atalean Jose Mari Agirre sinatu zuen idatziari (*EH Bildu Abertzalea edo Aberatsa*) eragileren batek eskaintako feedback-a izan dela; Oñatistyle? Zertarako, baina, ekintza hori? Esparrua argi zedarrizteko? Jose Mari eta ingurukoak estutzeko eta beldurrarazteko? Ematen du baietz. Zer da, baina, ekintza hori? Aldatz behean eta freno barik borroka ideologikoa, ideologia-borrokan jardutea? Dirudienez, bai. Halaxe ulertu dugu guk.

Alabaina, ez da izan Jose Mariren idatziak eragin duen erantzun bakarra. Hauts gehiago ere harrotu ditu, nonbait! Beste eragile batek ere ekarpen luzea bidali zuen Goienara; uztaillaren 10ean irakurri ahal izan genuen. Idatzi osoa da gogorra, oso gogorra eta halaxe hasten da: "... Proiektu desberdinak konfrontatu eta eztabaidatu beharrean, dena kakazteko ariketa bihurtzen dute batzuek. Joko horretan denbora galtzea ekidin izan dugun arren, ...". Eta halaxe jarraitzen du, anker, gupidagabe, bortitz, eta karga oso negatiboa duten hainbat hitz lagun: *konfrontatu, kakaztu, kezka, inpotentzia, borrokatzen, desgaituta, xahutu, larritzen, klientelista, antzuetan, pobreziazen erroa...* Puff! Larregikoa!

Eragile horrek askatasuna du sudur puntan jartzen zaiona idazteko EAJren inguruko herritar baten idatzia aitzakia hartuta. Haren etxe horman ez dago, ordea, spray beltzarekin egindako pintadarik. Zorionez! Berak adierazpen-askatasuna dauka XXI. mendeko Oñatin; Jose Mari Agirrek, ostera, ez! Orain 80 bat urte inguru ere, Gerra Zibila galduta, nazionalak sartu zirenean ez zen izan giro Oñatin; ezta Bilbon ere. Gure aurrekoak abertzaleak izan ziren, Eusko Alderdi Jeltzalekoak eta pentsakera hori jomuga hartuta jokatu zuten. Erasan egin zien lerratze horrek: jazarpena, kartzela eta kontzentrazioa-esparrua, heriotza, deserria... Denetik eduki dugu senitartean Oñatin eta Bilbon, abertzaleak izatearren. Geure historia hurbileko bizipen tamalgarri asko entzundakoak gara. Ez dakigu dugu senitartean Oñatin eta Bilbon, abertzaleak izatearren. Geure historia hurbileko bizipen tamalgarri asko entzundakoak gara. Ez dakigu dugu senitartean Oñatin eta Bilbon, abertzaleak izatearren.

XXI. mendean, adierazpen-askatasuna aldarrikatuko dugu Oñatin, borroka ideologikoa eta oldarraren paradisuan. Bai, Oñatin ere bai! Gora adierazpen-askatasuna, beti-beti!



Oporretan etxean ere, primeran

Uda ezberdina izan da aurtengoa askorentzat. Koronabirusak eragindako ziurgabetasunak, abuztuko opor egunak etxe inguruan igarotzea ekarri die askori. Alboko argazkian garbi gelditzen den bezala, ez dago oso urrun joan beharrik, primerako paraje batean, plan ezberdin eta berezi bat egin ahal izateko.



ARATZ LOSADA

ANIMATU GAZTETXERA ZU ERE

Xabat Azkoaga eta Aimar Anduaga,
Oñatiko Gazte Asanbladaren izenean

Asanblada indarberrituta hasi genuen ikasturtea iazko irailan. Gazte eta ideia berriak, asanbladaren eta autogestioaren suaren inguruan dantzan, gogo eta beharraren baitan. Eta ekin genion. Auzolanak, ikastaroak, ikuskizunak, jardunaldi ezberdinak, festak, hitzaldiak eta abar luze bat hilez hil aurrera eraman ditugunak.

Itxialdian, gazteok (gazte)etxetik erantzun genuen, geldirik egoteak zer zekarren jakitun, martxa galdu gabe. Gaur egungo egoeran ere jakin izan dugu alternatiba sortzen, artista zein ikusle ugari batuz, hitzaldiak eskainiz, auzolanean proiektuak aurrera eramanez. Ezinezko zirudien garaian jakin dugu egiten.

Eta iritsi zaigu konturatzerako ikasturte berria, lanerako urte berria. Auzolanean erein zen proiektu hark auzolanean loratzen du, eta haziak zabaldu dira jada.

Gaztetxeak elkartu gintuen aspaldi, eta elkartzan jarraitzen gaitu. Gazteok gogoz gaude gure proiektuak gauzatu eta alternatiba eraikitzaile izaten jarraitzeko, prest gaude gozatzeko eta gozarazteko. Prest ikasi eta irakatsi horretan, gure kabuz ekiteko. Horretara goaz. Animatu Antixenako Gaztetxera zu ere!

OHAR ETA DEIALDIAK



Feli García saria jasotzen, udal euskaltegiko zuzendari Roberto Altunaren eskutik

Euskaltegiko matrikula-zozketaren irabazlea

Euskaltegian ikasturtean zehar ibilitako ikasleen artean, matrikula baten zozketa egin ohi du udalak. 2019-20ko sariduna A2 mailako Feli García Duran izan da. Argazkian dago bera saria jasotzen (353,10€) udal euskaltegiko zuzendari Roberto Altunaren eskutik.

Atzeko Kaleko jaixak

Azken orduan jakin ahal izango dugunez, Atzeko Kalekoek zenbait ekitaldi antolatu dituzte larunbat honetarako (irailak 5): **17:00** Potx magoa; **18:15** Dultzaineroak; **19:15** Naia Herráez eta Julen Muruaren kontzertua; **20:30** Antton Telleriaren bakarrizketa. Saiotik saiora desinfekzio lanak egingo dituzte.

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Haziendarekin
- Informazioa
- Trafikorekin
- Salmenta
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es

Gezalaga Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com



OÑATIKO UDALEKO

ARAZERIXAN


HAUR ETA GAZTERIA SAILA

Gure ekintzen berri emango duen atala...

Haur eta gazteriako udal zerbitzuen uda!

Aurtengoa urte eta uda zaila izan bada ere, uztailean zehar, azkenengo urtetan bezala, haur eta gaztetxoentzako hainbat ekintza burutu ahal izan ditugu. Hala nola, Udako zaintza hezitzaile zerbitzua, Txipistin eta Gaztelekuko hainbat irteera, ... Ahal izan dugun neurrian topera disfrutatu dugu eta horren erakusle dira ondorengo argazkiak.

Milesker gurekin urtero jartzen duzuen konfiantzagatik, eta baita ere era batera edo bestera parte hartu duzuen guztiei, primeran pasatu dugu eta!!



KRISI GARAIETAN



Krisi-garaiak egokiak izaten dira gizarteak egituratzen dituzten gizarte-portaera sakonak azaleratzeko eta agerian jartzeko. Aspalditik bizi dugun krisi honek -batzuek zibilizatoria deitzen dutenak-, eta inoiz ez bezala gure ahuleziak agerian utzi dituen pandemiak, eztabaida sozialean dauden jokabide horietariko batzuk aztertzeke parada eskaintzen digu.

Alde batetik, gazte askoren jokabidea. Informazio nahiko eduki arren, pentsatzen dute gauzak ez doazela zuzenean beraiekin; pandemiaren eragina beraiengan, oro har, oso arina izango dela; konfinamenduaren ondoren merezita dituzten jaiak lapurtu dizkietela, eta egunetik egunera bizi behar dela (*carpe diem*).



Luis Guridi

Baita ere, norbanakoaren askatasunerako inolako oztoporik onartzen ez duten pertsonen profilari erantzuten diotenak aurkitu ditzakegu. Pentsatzen dute inor ez dela nor pandemiaren aurrean hartutako arauak beraiek betetzera behartzeko. Jokabide individualizatuaren ikuspegi hori oso bat dator gaur egungo merkatu sistema oinarritzen den printzipio eta baloreekin.

Beste talde bat, nahiko heterogeneoa, pandemiari aurre egiteko politika publikoen erabat aurka daudenek osatzen dute, eta hala adierazten ari dira azken astetan gertatzen ari diren kontzentrazioetan: birusa existitzen ez dela uste dutenak (negazionistak); dena negoziobide eta gu kontrolatzeko enpresa farmazeutikoen eta multinazionalen muntaia bat besterik ez dela diotenak (konspiranoikoak), edo beste medizina alternatiboan sinesten dutenak.

Azkenik, gizartean oso errotuta dagoen portaera aipatu dezakegu, gobernuak eta instituzioen neurriak behar bezala kritikatu gabe onartzen dituzten pertsonena. Etorkizunak nondik nora joko duen ez dakigun egoera honen aurrean beldurtuta, paralizatuta, gelditzen direnak. Hau ulergarria da, baina autoritarismoaren oinarriak jartzeko eta indartzeko besterik ez du balio eta giza eskubideen babesa bultzatzeko eta defendatzeko ez da jokabide onena izaten.

Garai hauetan, inoiz baino beharrezkoagoa da erakundeetatik eta sare sozialetatik proposatzen den guztiaren azterketa kritikoa egitea, erantzukizun soziala jokabide individualisten ordez azaltzea, elkartasuna gizarte-bazterketaren aurrean jartzea, eta politika sozialen eskakizuna indartzea. Azken finean, arduraz jokatzeko; ez gehiago, baina ez gutxiago ere. ■

IZU-KERIAK



Martxoko zenbakirako idatzi nuenean, oraindik Covid-19ak eragindako pandemian sartu berri geunden. Konfinamendua iristear zegoen; parkeak, tabernak, antzokiak irekita jarraitzen zuten; ordu murrizketak ez ziren existitzen eta isolamendua zer zen ere ez genekien.

Aste beteko kontuan berriz, egun ezagutzen dugun gizartea goitik behera aldatu zen: etxean egon beharra tokatu zitzaigun; komertzio gehienak itxi zituzten; kultura arloko ekitaldi guztiak bertan behera geratu ziren eta ezin ginen kalera irten behar-beharrezkoa ez bazen



Amaia Aranzeta

behintzat. Honela, beldurra gailendu zen koherentziaren eta gizatasunaren gainetik.

Halaber, momentu hauetan bizi dugun egoera ez da hain ezberdina. Bai, kalera irten gaitezke, denda eta komertzioak irekita daude; kultur jarduerak eta ekitaldiak berrantolatzen hasi dira... baina, egitan, zerbait aldatu ete da martxoaren 14tik hona? Jendeak geroz eta beldur handiagoa du bai bidaiatzeko, erosketak egiteko eta bai lagunekin pote bat hartzeko. Ezjakintasuna, urduritasuna eta anabasa sentitzen dugu egunetik egunera legeak aldatzen dituztenen partetik. Gaur egoera hobea denez "libre" utziko dugu dena eta bihar, zeinek daki, agian, etxean konfinatuta egon

beharko gara.

Hala ere eta argi dagoena da, ez dela erreza bizi dugun egoerari aurre egitea. Segurtasun-neurri batzuk hartu beharra daude baina, izu, beldur eta paranoia honen ordez, jendea lasaitu beharra dago eta ez orain gauden kaos honetara bultzatu. Bestalde, orain arte egindako pandemiaren gestioa ere ez zait egokiena iruditzen eta herrialdeek daramaten kontrolen tasa eta birusa detektatu zaien horiena, behin baino gehiagotan pentsatu dut medioengatik manipulatuak izan direla.

Izuaren gizartea beste behin ere agerian jarri da. Noiz arte bizi beharko gara errealitate distorsionatu honetan? . ■

Matrikula aldia zabalik

UDAL EUSKALTEGIAN

Bedita Larrakoetxea Udal Euskaltegian prest daude ikasturte berriari ekiteko. Aurten ere eskaintza zabala prestatu dute: Euskalduntze eta Alfabetatze mailak, titulu ofizialak (HABEren A1, A2, B1, B2, C1 eta C2. mailak) lortzeko ikastaroak, aurrez aurrekoak, etorkinei zuzendutako ikastaroak, Oñatiko euskara lantzekoak... Maila eta behar guztietara egokitutako eskaintza zabala. Izena ematen duten ikasleen artean matrikula baten zozketa egingo da. Joan den ikasturteko zenbait ikasleren iritziak bildu ditugu.



Bidebarrieta 18an dago udal euskaltegia



AMAIA UGARTE

Denbora libre pittin bat gehiago zuenez, B2 titulua ateratzeko baliatu zuen iazko ikasturtea Amaiak. "Duela hiru urte B1 maila gainditu nuen eta, iaz, pare bat hilabetetan lan barik egon nintzenez, berriro euskaltegian hastea pentsatu nuen, B2 ateratzeko asmoz. Egia esan, helburua ez da bakarrik titulua ateratzea; hori baino gehiago, arau gramatikalak ikasi eta euskara zuzen erabiltzeko nahiak ekarri nau euskaltegira, eta garbi ikusten ari naiz, zenbat eta gehiago ikasi hizkuntza bat, orduan eta gehiago maite duzula. Ez da beti erraza izaten gramatika ikastea, baina gustura nabil. Euskaltegiko irakasleak primerakoak dira, eta beti daude prest, pazientzia handiz, zuri laguntzeko. Gogoz eta motibatuta egonez geroz, oso gomendagarria da euskaltegira etortzea".



FRAN VERTIZ

Sortzez argentinarra, orain dela lau urte iritsi zen Oñatira aurrenekoz, beka baten bitartez, Lege Soziologia Institutuan ikastera. Euskararekiko jakin-mina piztu zitzaion, eta euskaltegian izena eman zuen. Gero Argentinara itzuli behar izan zuen, bere ikerketa lana amaitzera, eta iazko ekainean itzuli zen berriz ere Oñatira, eta baita euskaltegira ere. "Nire neskalaguna Oñatikoa da, euskalduna; bere ingurua ere euskalduna da, eta garbi daukat, Oñatiko bizimoduan parte hartu nahi badut (lagunartea, hitzaldiak, kontzertuak...) bertako hizkuntza ikastea beharrezkoa dela. Ez da erraza, baina saiatzen ari naiz, eta euskaltegia leku aproposa da ikasteko, jendearekin harremanak izateko...".

MARI JOSE
AUREGIALTZO

Hirugarren ikasturtea osatu du euskaltegian Mari Josek, eta oso gustura dabil, Alfabetatze taldean. "Gurasoengandik euskara jaso genuen, baina eskolan eta kalean, lagunekin, beti gazteleraz egiten genuen eta, jakina, berba egiteko erraztasuna galtzen da. Beraz, orain niretako denbora gehiago dudanez, euskaltegian hastea pentsatu nuen, hitz egiteko erraztasuna lortzeko asmoz, eta oso gustura nabil, asko ikasten ari naizelako. *Berbalagun* talde batean ere banago, astean behin elkartzen gara, kafe baten bueltan, euskaraz hitz egiteko, eta hori ere oso lagungarria da. Oraindik asko daukat ikasteko, baina aurrerapauso handia eman dut. Euskaltegiko taldean jende oso jatorra dago, irakaslea ere bikaina da eta, denbora edukiz gero, gomendagarria iruditzen zait".

munduko
bizikleta fabrikatzaile handiena den
GIANT markako
bizikleta elektrikoak
969 eurotik aurrera

Oñabike

BIZIKLETAK · PATINETEK · KIROL EKIPAZIOAK

oñabike.com Otadui 25, Oñati
Tel.: 943 78 05 65



MATRIKULA ZABALIK

irailaren 1etik 18ra

Oñatiko Udal Euskaltegian (Bidebarrieta, 18)
Bulego ordutegia: 9:00 - 13:00 / 16:00 - 18:30
943 782 496 / euskaltegia@onati.eus

Ohiko beka sistemaz gain, iraupen luzeko langabetuentzat dohainik (informatu euskaltegian). Matrikulatzen diren ikasleen artean zozketa egingo da eta saridunari matrikularen kostua itzuliko zaio.

AZTERKETA OFIZIALAK MAIATZEAN ETA IRAILEAN



MATRICULA ABIERTA

Del 1 al 18 de septiembre

Oñatiko Udal Euskaltegian (Bidebarrieta, 18)
Horario de oficina: 9:00 - 13:00 / 16:00 - 18:30
943 782 496 / euskaltegia@onati.eus

Además del sistema habitual de becas, parados de larga duración, gratis. Infórmate en el euskaltegi.

EXAMENES OFICIALES EN MAYO Y SEPTIEMBRE



EDUARD FERRER

Euskal Herriaz maiteminduta dagoen valentziarra (Algemesi) da Eduard eta urtebete darama gure artean bizitzen. "Bartzelonan ezagutu nituen oñatiar batzuen bidez iritsi nintzen hona. Hango tren geltokian egiten nuen lan, eta Zumarragakora lekualdatzea eskatu nuen. Hemen lana egiteko, A2 euskara maila lortu behar dut, eta horretan dihardut. Baina ez da hori euskara ikasteko arrazoi bakarra; herri batek bere hizkuntza baldin badauka, kanpotik gatozenok ahalegina egin behar dugu ikasteko edo, gutxienez, ulertzeko, bertakoek gaztelarrera pasa beharrik izan ez dezaten. Nire semeak (4 urte) primeran ikasi du euskara, eta berarekin euskaraz berba egiteko gai izan nahi dut".



LOREA NAVARRO

Aspaldiko arantzaxo bat ateratzeko asmoz jo zuen euskaltegira Loreak iaz. "Gaztetan aurkeztu nintzen EGA azterketara, baina ez nuen gainditu eta beti izan dut egarri hori barruan. Iaz B2 titulua atera nuen nire kabuz, baina C1 (lehenengo EGA) ateratzeko pentsatu nuen euskaltegira etortzea, gramatika kontuak berreskuratzeko. Ikasketa guztiak, uni-bertsitate barne, euskaraz egin nituen, baina lanean ez dut asko erabiltzen, eta igarri egiten da ez daukazula lehenengo samurtasunik edo freskotasunik. Gainera, ikusten dut kalean ere erdarakada asko erabiltzen ditugula eta, beraz, gramatika berreskuratu, arau berriak ikasi eta euskara aberasteko gogoz etorri naiz euskaltegira".



IGOR TOME

Aspalditxotik buruan bueltaka zeukan gogo bati erantzunez, C2 mailako titulua lortzeko asmoz jo zuen euskaltegira Igorrek. "Duela urte batzuk Donostian hasi nintzen euskaltegira joaten, baina utzi egin behar izan nuen, denbora faltagatik, eta har hori neukan. Kontua ez da titulua ateratzea, bakarrik. Nik beti erabili izan dut euskara tresna bezala (ikasketetan, lanean, eguneroko bizitzan...), baina hizkuntza bera lantzeko eta sakontzeko tarte bat hartzea ederra izan da, oso aberasgarria". Euskaltegian aurkitu duen giro bikaina azpimarratzen du. "Taldekideen artean giro oso ona eta irakasleen aldetik inplikazio eta maila handia ikusi ditut. Espazio egokia ikasteko, benetan".

	ASTELEHENA				ASTEARTEA				ASTEAZKENA			
	Urgain Aerobik	Urgain Pilates	Zubikoa Fitbike	Zubikoa Pilates	Urgain Aerobik	Urgain Pilates	Zubikoa Fitbike	Zubikoa Pilates	Urgain Aerobik	Urgain Pilates	Zubikoa Fitbike	Zubikoa Pilates
9:15				Pilates Terap.				Pilates		Gimnasia Terap. *		Pilates Terap.
10:15			Fit bike	Pilates				Zunba		Gimnasia Terap. *	Fit bike	Pilates
11:15				3. adina				3. adina		*Gela zehazteko		
15:00			Fit bike	Zunba				Pilates			Fit bike	Zunba
17:15	Body tono		Fit bike			Pilates			Body tono		Fit bike	
18:15	Body Balanze	Pilates 18:30		Egokitua	Zunba	Egokitua	Fit bike		Body Balanze	Pilates 18:30	Fit bike gazte	
19:15	Body tono	Pilates Terap. 19:30	Fit bike 19:30		Zunba Step	Pilates	Fit bike		Body tono	Pilates Terap. 19:30	Fit bike 19:30	
20:15	Body Balanze				Zunba		Fit bike		Body tono			

FITNESS EKINTZAK - 2020

Jarduera batzuk Urgain-Errekalde eskolako sotoko gela irekian egingo dira

Udal Kirol Zerbitzuek irailetik abendura eskainiko dituzten fitness zerbitzuen programa duzue ikusgai goiko taulan. Bertan adierazten den moduan, jarduera batzuk Urgain-Errekalde eskolako sotoko gela irekian egingo dira, aforoa handitu eta higiene nahiz osasun baldintzak bermatu ahal izateko. Urgainen ez da dutxa eta aldagela zerbitzurik egongo. Bakoitzak bere esterilla, toalla eta hidratatzeko ontzia eramatea gomendatzen da. Bestalde, Fitbike saioak Zubikoan izango dira, baina baimendutako edukiera gainditzen den orduetan, bi gelatan (Pilates gelan, streaming bidez) egingo dira saioak.

► **TARIFAK:** Hauek dira jarduera bakoitzeko tarifak, hileko

(bigarren kopurua Ez-Bazkideentzat da): **Gimnasia Egokitua** (8,90€/12,00€), **Gimnasia Terapeutikoa** (30,95€/41,80€), **3. Adina** (8,90€/12,00€), **Body Tono** (15,50€/20,90€), **Body Balanze** (15,50€/20,90€), **Fit Bike Gazte** (15,50€/20,90€), **Fit Bike** (30,95€/41,80€), **Pilates** (36,05€/48,65€), **Pilates Terapeutikoa** (36,05€/48,65€), **Zunba Txiki-Gazte** (11,65€/15,70€), **Zunba Strong** (15,50€/20,90€), **Zunba** (30,95€/41,80€) eta **Zunba Step** (30,95€/41,80€).

► **IZEN-EMATEA** Zubikoa kiroldegian (943716375) edo *on line* (<https://url2.cl/nt36Q>), irailaren 8ra arte. Aforoa gainditzen bada, zozketa egingo da izena ematen dutenen artean.

	ASTELEHENA 7				ASTEARTEA 8				OSTEGUNA 9				OSTIRALA 11		
	Urgain 1	Urgain 2	Fit bike	Zubikoa	Urgain 1	Urgain 2	Fit bike	Zubikoa	Urgain 1	Urgain 2	Fit bike	Zubikoa	Zubikoa		
7:35															
9:15		Aholkularitza presentziala		Pilates 1				Pilates 1					Pilates 1	Gimnasia Terap. 1	
10:15		Fit bike 1		Gimnasia Terap. 2				Zunba 1					Zunba 1		
11:15				Aholkularitza presentziala				3. adina					3. adina		
13:30															
15:00			Fit bike 2					Zunba 2					Zunba 2	Zunba Strong 1	
17:15	Pilates 2	Body tono 1	Fit bike 3		Pilates 2			Pilates 2							
18:15		Body Balanze 1	Fit bike gazte				Fit bike 4	Aholkularitza presentziala					Fit bike 4	Aholkularitza presentziala	
19:15		Body tono 2	Fit bike 5				Zunba Step 1	Fit bike 5	Aholkularitza presentziala				Zunba Step 1	Fit bike 5	Aholkularitza presentziala
20:15	Pilates 3	Body tono 3			Pilates 3	Zunba 4		Pilates 3	Zunba 4						

► ATE IREKIAK

- Irailaren 7tik 11ra (ikusirik ondoko taulan).
- Saio guztiak dohainik
- Lekua gordetzeko izena ematea gomendatzen da.
- Pilateseko hastapen ikastaroan (3 egun) parte hartzeko derrigorrezkoa da izena ematea.
- Ate irekietan aurreko aholkularitza zerbitzu egingo da Zubikoa kiroldegian. Epostaz (onati@egoitek.eus) edo telefonoz (943716375) ere jaso ahal izango da informazioa.

OSTEGUNA				OSTIRALA	
Urgain Aerobik	Urgain Pilates	Zubikoa Fitbike	Zubikoa Pilates	Urgain Aerobik	Zubikoa Pilates
			Pilates		Gimnasia Terap.
			Zunba		Gimnasia Terap.
			3. adina		
			Pilates	Zunba Strong	
	Pilates		Zunba Kids 16:45-17:30		
Zunba	Egokitua	Fit bike	Zunba Gazte 17:30-18:15		
Zunba Step	Pilates	Fit bike			
Zunba		Fit bike			



Urgain-Errekalde eskolako sotoko gela irekia

▲ **URGAIN-ERREKALDE.** Fitness jardueretako aforoa handitu eta osasun baldintzak bermatu ahal izateko, ekintza batzuk (ikusitako goiko taula) Urgain-Errekalde eskolako sotoko gela irekian egingo dira. Ez da aldagela eta dutxa zerbitzurik egongo bertan.

Erostarbe, Casais eta ULMA taldeko txirrindulariak protagonista

Junior mailako ULMA-Aloña Mendi taldeko txirrindulariak indartsu ibili dira uda partean. Aimar Erostarbek uztailaren 19an Lizarran jokatu zen III. Robert Innova Saria irabazi zuen junior mailan. Taldekako sailkapena ere irabazi zuten oñatiarrek. Uztailaren 28an, bigarren sailkatu zen Erostarbe Otsagabian, eta Unai Cueva 6.

Abuztuaren 9an Erostarbe (2.) eta Casais (3.) podiumera igo ziren Zumaiñan; Cueva 8. sailkatu zen eta taldeka Ulma nagusi. Abuztuaren 15ean Casaisek garaipena lortu zuen Villatuertan (Nafarroa). Mendiko saria eta lehen urteko junior onenaren saria ere eskuratu zituen.



Danel Casais, Villatuertako helmugan

Azpiratu, bestalde, Aimar Erostarbe Espainiako junior mailako selekzioarekin aritu dela Plouai-n (Frantzia) jokatu berri den Europako txapelketan. Eta datorren astean Mallorkan jokatu den Espainiako txapelketan parte hartuko dute Erostarbe, Casais eta Cuevak, Euskadi ordezkatuz.

SAN MIGEL SARIAK

Azken orduko gorabeherarik ez bada, **irailaren 12an** (10:00) Junior mailako txirrindularientzako Mikel Deunaren Saria jokatu da Oñatin, eta **hilaren 19an** (10:00) Afizionatu mailakoa.

Oñatiko Mendi Martxa bertan behera

Irailaren 19an egitekoa zen VI. Oñatiko Mendi Martxa bertan behera uztea erabaki dute antolatzaileek. Uztailean birusak izan zuen bilakaera ikusirik, arduraz jokatu eta ez dute beste aukerarik ikusi. Izena emanda zuten guztiei email bat bidali diete, diruaren itzulera nola egingo den jakinaraziz.



Gualbi
asesores

Bezeroen beharrei erantzuteko prest!

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza
Merkataritza • Abokatuak

Euskadi Etorbidea 6
T.: 943 781 648
onati@gualbiasesores.com
-
www.gualbiasesores.com

Felix Ibarredoren bi musika lanek argia ikusiko dute laster

Zazpi urtez kajo batean gordeta egon ostean, Felix Ibarredo musikagile oñatiarraren bi obra eder biltzen dituen grabazioak argia ikusiko du laster, Durangoko **Silboberri Txistu Elkartearen** eskutik. *Symphonic Portrait* du izenburua CDak eta Ibarredoren *Zuk zer dezu?* eta *Izarbil* orkestrarako obrak biltzen ditu.

Zuk zer dezu? Arantzazuko frantziskotarren 500. urteurrena ospatzeko konposatu zuen Ibarredok. Orkestra, abesbatza eta bakarlariarentzako obra bat da. Iñaki Beristain zenak egin zituen narratzaile lanak. *Izarbil*, berriz, saxofoi laukotea eta orkestra sinfonikoarentzat idatzitako konposizioa da.

AMAITU GABEKO PROIEKTUA

Goian esan dugun moduan, Ibarredoren bi lan hauek 2013an grabatu ziren, Silboberri Txistu Elkartearen ekimenez, *Verso* eta banketxe baten laguntzarekin. Madrilgo kian egin zen grabaketa, RTVEren orkestra eta hainbat bakarlariren (soxo-jotzaileak, sopranoa, akordeoi jolea, txistularia...) parte Tamayoren zuzendaritzapean.

Tamalez, baina, handik gutxira diskoetxeak banketxeak aldatu egin zuen bere dirulaguntza beste mimoz egindako grabazioa argia ikusi geratu zen tiradera batean gordeta.

Zorionez, Silboberri elkarteak ez du etsi bere ahaleginean, eta, hainbat saiakera antzuren ostean, iaz, Manuel Ventero RTVEko orkestrako zuzendari-gerente berriarekin biltzeko aukera izan zuten, eta proiektuaren historia azaldu ondoren, CDA argitaratzea erabaki zuten, *Verso* diskoetxeko zuzendari ohi baten baimenarekin.

Gogoratu, Felix Ibarredok Espainiako Musika Sari Nagusia jaso zuela 2019an, eta Arte Ederretako Urrezko Domina 2018an. Beraz, sari eta errekonozimendu horiek borobiltzeko modu ezin hobea izango da izen handiko konpositore oñatiarraren musika biltzen duen CDA argitaratzea. Oñatiko udalak 1.200 euroko laguntza eman dio Silboberri elkarteari argitalpena aurrera ateratzeko.



Oviedoko Operaren abesbatza zuzenduko du Esteban Urzelai



Oviedoko Opera abesbatzako zuzendari izendatu dute Esteban Urzelai oñatiarra. 2016az geroztik koru asturiarra zuzendu duen Elena Mitrevska Malmö-eko (Suedia) Operako zuzendari izendatu dute, eta haren lekua beteko du oñatiarrak. 1996-2009 artean Oñatiko Ganbara Abesbatza zuzendu zuen Urzelai eta 2007az geroztik Donostiako Orfeoiko zuzendariordea izan da, eta ahots grabeen *Suhar* abesbatzako zuzendaria ere bada 2018az geroztik.

Yoga hastapen IKASTAROA



Oñatiko *Sanatana Dharma* Yoga Eskolak antolatuta, hastapen mailako yoga ikastaroa egingo da irailaren 14tik 17ra eta 21etik 24ra. Zortzi eguneko ikastaroa, astelehenetik ostegunera, 19:30etatik 21:00etara. Yoga zer den bertatik bertatik bertara ezagutu eta probatu nahi duten herritar guztiak daude gonbidatuta. Informazioa eta izen-ematea: yogaonati@gmail.com edo 610 953 794

JUANJE MARGOAK

T. 627 818 247

Zure etxebizitzaren hobetzeko prest

Amara igartua
ARKITEKTURA ESTUDIOA

-Baserrien eta eraikinen zaharberritzeak -Ikuskaritza Teknikoak (ITE)
-Ilogailu eta 0 kotara proiektuak -Fatxadak isolatzeko proiektuak

tel: 677 31 20 57 • email: amaiigartua@gmail.com • Oñati

Oñatiera lantzeko pilula-multzoa interneten

Udal Euskaltegiak, aurtengo otsailean, ULMA Taldeko kooperatibetako langile talde bati oñatiera lantzeko ikastaro laburra eskaini zion. Hura amaitu ondoren, gainerako langileei ere hango edukiak zabaltzea mereziko zuela eta, bertan landutako zenbait gairekin bilduma bat prestatu du euskaltegiak EMUNeko teknikarien laguntzaz, interneteko lotura baten bitartez zabaltzeko asmoz. Lotura hori lehenengo eta behin ULMA barruan banatu zen uztaileko BEGIRA aldizkari elektronikoaren bitartez, eta orain herritar guztien eskura jartzen da esteka honetan klikatuta:

<https://view.genial.ly/5ee9ba7fe2e75a0d8bce3bfa>



Eskaneatu QR kodea Oñatiera lantzeko pilula multzoa ikusteko



Haurrentzako antzerki eskola urritik ekainera

Irazan Antzerki Guneak haurrei zuzendutako antzerki eskola antolatuko du ikasturte berrian. Bi talde bereziko dira adinaren arabera:

•HAURRAK I (1. maila-3.maila)
Astearreak (18:45 -19:45) / 16€ hilean

•HAURRAK II (4. maila-6. maila).
Astearreak (17:00-18:30) / 20€ hilean

Emozioak lantzea izango da helburua; kontzientziak piztea, ingurua aztertzea, sortzea, nork bere burua ezagutzea, bestea ulertzeko.

Izen emateko: irazan.eskola@gmail.com / 659031036
Irailaren amaiera itxiko da izen ematea.



Muga guztien gaineratik, amets guztien artetik

ELKAR HEZIN
irailatik aurerra ERE,
SEGURU, EROSO ETA LASAI.



MIKROIPUINEN ARTEA

Hitz gutxitan, kontakizun handiak

'Relatos en Cadena' mikroipuin lehiaketako final handian izan da Iñaki Goitia

Sariketara aurkeztu diren 28.151 kontakizunen artean hautatutako hamar finalistetako bat izan da idazle oñatiarraren 'Descorazonador' lana



Iñaki Goitia, SER irratia-
ren Donostiako
egoitzan,
XIII. Relatos
en Cadena
lehiaketako
final
nagusiaren
egunean

SER irratia eta Madrilgo Idazle Eskolak antolatuta, mikroipuin arloan estatu mailan ospe edo izen handiena duen lehiaketa da 'Relatos en Cadena'. Carles Fancino gidari duen *La Ventana* irratsaioan egiten da, irailetik ekainera arte. Astero jasotzen duten lanen artean irabazle bat hautatzen dute. astelehenetan, epaimahaiaren eta hiru finalistek elkarri emandako botoak kontuan hartuz. Hileko irabazlea aukeratzeko, entzuleek Internetez emandako botoak ere aintzat hartzen dituzte, eta hilabete gutrietako hamar irabazleek 6.000 euroko saria eskuratzeko aukera dute urteko final nagusian.

2019/20 ikasturtean 44 herrialde ezberdinetako 6.175 idazleren 28.151 mikroipuin aurkeztu dira lehiaketara, eta Iñaki Goitia oñatiarraren *Descorazonador* lana izan da hamar finalistetako bat. Ekainean lortu

 ARRIZABALAGA Aroztegia	 PAKITA Altzariak
Berezo Ind. 10 Tel. 943 78 14 64	Sta. Marina, 6 Tel. 943 78 02 21
SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK	

IRAZOLA

Okindegia

Ostiral, asteburu
eta jai egunetan
baserrniko agia,
egurrezko labean egina



Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754

zuen finalerako txartela Goitiak; urrian ere egon zen hilabeteko hautagaien arten, eta martxoko lehen asteko finalera ere iritsi zen, baina ikasturteko azken aukeran lortu zuen final nagusi-rako txartel preziatua.

Ekainaren 29an ospatu zen finala eta, sari potoloa lortzerik izan ez bazuen ere, gustura ze-goien idazle oñatiarra. "Niretako amets bat betetzea izan da final nagusian egotea. Tamalez, Covid-aren ondorioz ezin izan ginen finalista guztiak elkartu Madrilén, ohikoa den moduan, baina, behintzat, telematikoki elkar ezagutzeko aukera izan genuen, eta esperientzia polita izan zen. Zenbat lan aurkezten diren ikusita, finalean egotea gauza handia da. Saria potoloa da eta, gainera, oihartzun handiko lehiaketa denez, atek zabaldu ahal dizkizu". Hileroko irabazleek idazle Eskolaren ikastaro bat egiteko matrikula irabazten dute.

100 HITZ, GEHIENEZ

Relatos en Cadena lehiaketako oinarrien arabera, mikroipuinek ezin dute 100 hitz baino gehiago eduki. A ze pagotxa!, pentsatu du honezkero baten batek; 6.000 euro ehun hitzengatik.

Baina ez da hain erraza. Mikroipuin on bat idazteak teknika eta dedikazio handia eskatzen du. Nobelan ez bezala, mikroerrelatoetan ez dago pertsonaiak karakterizatzeko, giroa sortzeko eta istorioa garatzeko orrialderik; lerro edo hitz gutxitan kontzentratu behar da dena (planteamendua, korapiloa eta askaera edo amaiera). "Ondo aukeratu behar da hitz bakoitza; ezin da egon barbarik soberan" azaldu

'DESCORAZONADOR'

XIII. Relatos en Cadena lehiaketako finalista

INAKI GOITIA LUCAS



Siempre como nuevos, los corazones que trasplanta el doctor Silver son sanos y fuertes, de latidos acompasados, todos ellos de pacientes fallecidos por otras patologías. También el de mi mujer que, tras la operación, sale a correr cada mañana. Por las noches sueña con un tal Matías Ackerman. Encontrarlo y acabar con él ha sido más fácil que convencer al doctor de que sustituya mi corazón sano por el de Matías. Ahora mi mujer solo tiene ojos para mí y me hace el amor de forma apasionada, mientras yo no dejo de evocar las curvas de la señora Ackerman.

digu Goitiak. "Elipsiekin (esaten ez denarekin) ere asko jokatzen da, eta titulua ere garrantzitsua izaten da, istorioaren zentzua osatzeko ezinbestekoa baita askotan. Amaierako kolpea ere inportantea izaten da, baina ez derrigorrez; batzuek nahiago izaten dute amaiera irekia utzi. Azken batean, gauza gutxirekin asko esatea, edo iradokitzea, da gakoa. Hitz gutxitan lortu behar duzu Irakurleari nolabaiteko zirrara eragitea, emozioak sortzea edo zer pentsatua ematea". Goitiaren lanek sarkasmoarekin jokatu ohi dute sarri, eta gustuko du tarteka meta-literaturari leku egitea eta hausnarketa filosofikoak tartekatzea, edo arrasto bat uztea istorioaren atzean.

SARIAK ETA PROIEKTUAK

Aipatutako 'Relatos en Cadena' lehiaketako finalean egoteaz gain, beste hainbat sari ere irabazi ditu Goitiak. RTVEren *Wonderland* lehiaketa birritan irabazi du, eta Torre Pacheco (Murtzia) herriko sariketa ere eskuratu du, batzuk aipatzearen. Gainera, gero eta indar handiagoa hartzen ari den Kataluniako *La Microbiblioteca* lehiaketan ere finalista izan da behin baino gehiagotan;

aurtengo ekainean azkena.

Lehiaketa ezberdinen harira argitaratu izan diren hogeit bat liburutan irakur daitezke bere lanak, beste idazle batzuenekin batera, baina ez du bazterten bakarkako liburu bat ateratzea. "Badut asmoa, baina neure buruarekin behintzat gustura gelditu nahi nuke, eta 'perfekzio' puntu horren bila ari naiz. Iritsiko da bere momentua". Oraingo, bere *Facebook*-eko horman eta *Con K de Kafka* blogean irakur daitezke Goitiaren kontakizunak.

Filosofoa formazioz, liburu-zaina ogibidez, eta idazlea bokazioz, literatur genero ezberdinak (ipuina, saiakera...) landu ohi ditu Goitiak. Hala, saiakera liburu bat idatzita daukala aurreratu digu, existentzialismoa eta fisika kuantikoaren arteko erlarreragina aztertzen duena.

Musika talde ezberdinendako letrak ere idatzi ohi ditu Goitiak, eta bere hurrengo erronketako bat nobela bat idaztea da. " Bai, asmoa hori da, baina errespetua ematen dit, oso konstantea izan behar baita nobela bat idazteko. Oraingo, aurretiko lanak egiten ari naiz: apunteak bildu, egitura diseinatu, planifikazioa... gero horri guztiorri forma emateko".



Mikroipuin batean oso ondo aukeratu behar da hitz bakoitza. Elipsiekin ere asko jokatzen da, eta titulua ere garrantzitsua da, istorioaren zentzua osatzeko ezinbestekoa baita askotan

TABERNA • JATETXEA
Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA



(*) Itten: arrastua, pistia

>> INGO XONAU! (1)

Bakaziño ostian

Amaia: Uda honetan majo ibilli gaittuk Euskal Herrixan zihar!

Jon: Bai, horixe, urrin fan barik be majo ibilli lleen! Felipek eta konpaiñiak antolatutako ibillaldixari esker, gure Euskal Herrixa barru-barrutik ezaguketako aukeria izan xonagu.

A: Asko gozau xuagu: luziak izan barik, egitteko moduko ibillaldixak, paraje zoragarriak, lagunarte bikaiña eta kontziertuak, apartak!

J: Hemeretzi etapa izan dittun danera, hasi Arabako punta batian eta akabo Naparruako beste puntan, tartian urrugako tontor pillia igota.

A: Bai, garagarillaren hamalauan hasi gintzuan eta agustuaren batian akabo.

J: Astian hogeikotia, eta astegoixenetan hirurogei be kontau xonat, bertakuak eta kanpokuak: euskaldunak, katalanak, alemanak ..., leku askotakuak.

A: Eta gabeko giruaz zer esaten dok?

J: Afalosteko girua espeziala izaten zunan, patxadan, gustura barriketan edo txantxeetan, lagun artian.

A: Hi, eta kontziertuak?

J: Migelek ekarritako taldiak ezittunan badaezpadakuak izan, e!

A: Ez horixe, Maddi Oihenart, Mikel Urdangarin, Maixa Lizarribar...

J: Bai, akordautu bakarrik oillo ipurdixa jarten xatan!

A: Eta orain zer? Udia oraindiok eztok akabo!

J: Bai, azkenengo kartutxuak herrixan erre biharko ditxunagu,

A: Oraindiok gauza asko egin bihar ditxuagu, egitten izten baxoskuai behintzat!

J: Orain berriz? Alde egin hortik billur horreikin!

A: Badakik, uda honetan herri danetako jaixak debekatuta egon dittuk!

J: Hi, hor konpon! Esanak esan, guk ondo pasau bihar ditxunagu herriko jaixak, ezititezela hona etorri holako koplakin!



>> AUZOUNAK ETA BASERRIXAK LOTU

Araotz auzuak bederatzia auzouna dittu bere barrutixan. Jakingo zeuke esaten zein auzounatan dagozen –ena deklinabide-kasuan amaitutako Araozgo baserri honeik?

1. Txomena
2. Azkoitixena
3. Txurdiñena
4. Txopena
5. Lopena
6. Otsuena
7. Sesiñena
8. Txapelena
9. Popelabena

- a. Uriarte
- b. Aizkorbe
- c. Jausoro
- d. Zubia
- e. Araotz urruti
- f. Madina
- g. Agerre
- h. Ugaran
- i. Gerneta

ANTXIÑAKO FOTOGRAFIAK



Oñatin be moldautako beste pelikula bat

Gure herrixak izan dau eta badako argazkilarixak ez ezik, **zinegille eta zinezaliak be karriaitteko** zertxo berezi bat. Kale aldian dagozen jauregi, etxe, eliza, plaza, kanto, iturri eta beste eraikin, leku eta txoko ikusgarri-interesgarriak **marko egogixa** eskintten daue era askotako dokumentalak eta erreportajiak egitteko. Eta baserri-giroko hamasei auzuetan eta auzuetatik ikusi geinkien paisaje eta paraje zoragarri askotan be **eszenarixo aproposak** topauko dittugu filmaziño-lanetarako. Hori dala eta, batetik eta bestetik hainbat profesional eta zaletu etorten xaku Oñatira euren irudixak grabaittera.

Gaur egungo tramankulu modernuakin samurragua da plano eta imajiña ederrak ataratia; baiña sasue batian estribillo asko egin bihar izaten zan emaitza itxuroso bat eskuraketako. Aspalditxotik zinegille txantxikuarrak, amateurrak batez be, hemen bertan moduketan diharduein lan inportantiak ahaztu eta baztertu barik, orainguan, alde edo molde, **Oñatin filmautako pelikula pare bat** aittatuko dogu. Gaztetxuak giñala, **Diez fusiles esperan** izenekuaren eszena batzuk erro dau ziran **1958xan San Migel parrokiako korupeian** eta **Lazarragarren torriaren burdinazko ate** zaharraren inguruan. Gaixa I. karlistadako pasadizo batian oiñarrittuta eguen eta **zuzendarixa José Luis Saenz de Heredia** izan zan, Francoren kuttunenetakua. Baiña gure artian ikusmin haundixena **Paco Rabal** artistikiak sortu eben, pelikulan Jose Iribarren protagonista, ordurako zine-munduan nahiko ezaguna zan-eta.

Askoz beranduago, **1994ko udazkenian**, zarata eta zalaparta gehixago ekarri oskun hona **Pierre Boutron zuzendari frantsesaren Fiesta** pelikuliaren erro dajiak. **José Luis De Villalongaren** izen bereko nobeliari jarraitetan otsan; Mondraguen **1936ko gerra zibillian** frankisten ardurapeian izan ei ziran **fusilamenduen bertsiziña** agertu gura eben. Arrasate gerraostian lartxo aldatu dalako, pasarte asko Oñatin grabaittia pentsau euen produkturiak, **Jean Louis Trintignant** lako artista ezagunekin. Hartarako **ixa herri guztia dantzan** jarri zan: plaza nagusixari, hainbat kaleri, unibersidadeko patixuari eta beste leku batzueiri **zahar itxuria** emun xaten; eta **herrittar askok** filme horretan **parte hartu euen extra lez**, papel oso desbardiñetan. **Arazo latzena**, baiña, **nobelan eta gidoian eguen**: 1936ko udazkenian Arrasaten eta inguruko herrixetan gertatu ziran sarraski bildurgarriak benetan pasau ziran moduan kontau biharrian, **erdi-asmatuko bertsiziño faltuan** erakusten dosku P. Boutron-en obra honek.

Ba, aste honetan bertan ekingo xaue Oñatin **filme barri** baten grabaziñuari: **Manu Gómez** arrasatearrek zuzendutako **Érase una vez...Euskadi** titulua eukiko dauen lanari, hain zuzen be. **Gaixa 1985eko udan** kokakuta dago: garai haretako Euskal Herriko giro gatazkatsu eta nahasixan **hamabi urteko lau mutikok** euren oporraldi-egunetan **dakoin bizipen gorabeheratsuak** agertuko ei dau **Beatriz Bodegasek** ekoiztutako pelikula honek. Kasu honetan, seguru asko, eztogu ikusiko aurrekuak herrixan eragin eben mobidarik, hemen **barruko eszena batzuen irudixak bakarrik** hartuko diralako. Horretarako aukeratuko dauen tokixa Mikel Aozaraza kalian daguen **Oruetaneko etxia** da. Eraikuntza hori **Jose Orueta araoztarrak** jaso eben 1912-1913 aldera, aurretik han eguen beste etxe bat erosi eta bota ondoren. Orduan Lekunbarri aldeko etxerik barrixena izango zan; orain, barriz, zaharrena, inguruko danak barriztau egin dittue-eta. Dana dala, hau be laister ordezkaittekotan dira.

Argazkixak Kontzejupetik aldizkariko artixibokuak dira eta Iñigo Arregik ataratuak.
Xabier Zelaiak argibide batzuk samurtu dosku. Eskerrik asko!

Aldaketa garaia da



Zure bizilekuak aldaketa bat
behar duela badakizu.
Kalitate oneneko produktuekin
dekoratzeko garaia da.

Eman maitasuna zure bizilekuari.